

ELKARRIZKETA: BILGUNE FEMINISTA • ESPERIENTZIAK: LASK ABESBATZA
ETA IKAS KOMUNITATEA • GALDEIDAZUE: JOSE MANUEL PALACIOS •
KOOPERA MERKATUA • ATZEKO ATETIK: ASIER SOTA

hh
hik hasi

166

4 EURO • 2012KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Trokonizko Geroa eskola
Waldorf pedagogian oinarrituta



8 URTETIK
AURRERA

IRIBARREA ZABALTZEKO IPUINAK

JUAN KRUZ IGERABIDE
JOKIN MITXELENA

Iribarrea zabaltzeko ipuinak ipuin-liburua, xarmaz eta magiaz beteriko hamar ipuinek osatzen dute. Hauek dituzue horietako batzuk: sudurra okertzen zuen aitonarena, haur aurreratuak baino joaten ez diren eskolarena, Lurraren ardatza aldatu zuen haur eskimalarena...



8 URTETIK
AURRERA

ZABALEKO TXORIMALOA

JUAN LUIS ZABALA
MAITE GURRUTXAGA

Iker herri handi samar batean bizi da bere amarekin, eta eskola etxetik urrun samar dagoenez, amak eramaten du egunero kotxez, harik eta erabakitzen duen arte, Ikerrek eskolara oinez joan behar duela.

10 URTETIK
AURRERA

NIRE AITA IKUSEZINA DA

JULEN GABIRIA
PATXI GALLEGO

Elene neska azkar eta alaia da, anaia txiki bat jaiotzen berri zaiena. Denak daude pozik eta apur bat urduri aldaketekin, baina Elenek badu kezka bat ere: aita ikusezina bihurtu da...



12 URTETIK
AURRERA

MOTOZERRA

XABIER MENDIGUREN
AITZIBER AKERRETA

Ttarttaloren herri-ipuina, edo Polifemoren mito klasikoa, terrorezko film baten gisa kontatua: bi gazte, basoan galduta, etxe bakarti batera iristen dira, eta begi bakarreko gizon beldurgarri batek zabaltzen die atea...



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



8
gaia

TROKONIZKO GEROA ESKOLA

Geroa eskola librea Trokonizen dago, Arabako Lautadan, Gasteiztik hamar bat kilometrora, hain zuzen. Mendialdean, izan ere, Waldorf pedagogiak berebiziko garrantzia ematen dio naturari: haurra naturarekin harremanetan egoteari.



16
elkarrizketa

IDOIA TRENOR ETA MAIDER GONZALEZ

Maider Gonzalez eta Idoia Trenor hezkuntza sistema barrutik eraldatzeko lanetan ari dira, errotik kontzeptu aldaketa bat proposatuz: Hezkidetza. Biek pasioz eta arduraz hitz egiten dute heziketaz eta feminismoaz, eta bien uztarketatik etorriko den jendarte aske, kritikoa, justu eta solidarioaz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GEROA ESKOLA. WALDORF PEDAGOGIA.

16 elkarrizketa

IDOIA TRENOR ETA MAIDER GONZALEZ.

25 esperientziak

Lask abesbatza, emozioak jorratzeko.

Laskorain ikastola

28 esperientziak

Ikas komunitateak eskolatik haratago.

Orokieta eskola

30 galdeidazue

Kulturarteko hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuta, zer da kulturarteko ikastetxe bat? Jose Manuel Palacios

33 berriak

40 nora joango gara?

Koopera merkatua, kontsumo arduratsuan sakontzeko.

42 Atzeko atetik

Asier Sota. Antzezlea.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-02-27). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetuetan
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

martxoa

Hezkuntza-ezkuduntza osoen mugak



Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan eskola uzte goiztiarraren datuak Europakoen parekoak diren arren, Espainiako Estatuako zakuan sartuta hezkuntza erreforma ezarri beharko dute.

Iragarri zuten eta egin egingo dute. Mariano Raxoik Espainiako gobernu-buru kargua hartu zuenean iragarri zuten hezkuntza espainiarrezeko asmoa zuela. Eta asmo hori nola gauzatu duten zehaztu du Jose Ignacio Wert hezkuntza ministroak. Erreforma berri hori, aldaketa segida luze bati gehituko zaio. Izan ere, 1970etik Espainiako Estatuan hamabi lege-organiko onartu dituzte, eta 2006tik, DBHn, lau erreforma egin dituzte.

Aldaketa horiek egiteko arrazoi nagusia, eskola uzte goiztiarra eta porrota omen da. Espainiako Estatuan hamar ikasletik hiruk egiten dute porrot, Europako bikoitzak. Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan bestelakoa da, ordea, egoera: lehen hiru lurraldeetan ikasleen % 12,6k uzten dute eskola DBHko ikasketen ondoren; Nafarroan, aldiz, % 16,8k. Datuak 2010ekoak dira, eta hamarkadako datu onenak dira.

Aipatu dituzten aldaketen artean

hauexek izan dute oihartzuna, batez ere: DBH hiru urtera mugatzea, eta, ondorioz, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa hiru urtera luzatzea Frantziako Estatuan bezala; Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaia kendu eta, horren ordez, Konstituzioko balioak landuko dituen Heziketa Zibiko eta Konstituzionala jartzea; eta, eskoletan neska-mutilek zer ikasten duten eta zer ez jakiteko Azterketa Nazionala ezartzea.

Erreforma hori ote da hezkuntza arloan ditugun arazoaren irtenbidea? Edo elitismoa bultzatuko dute ikasleak lehenago bereiziko dituztelako DHB laburtuta; eta, bestetik, eskolak espainiarretako dituzte Heziketa Zibiko eta Konstituzionala ikasgaia eta Azterketa Nazionala ezarriko dituztelako?

Lehenbailehen jarri nahi dituzte martxan aldaketak, 2013-2014 ikasturtean, hain zuzen. Hala ere, dagozkion tramiteak pasa beharko ditu oraingoz asmoa denak. Lehenik, lege-organikoa egin beharko dute, eta, ondoren, Kon-

gresutik igaro beharko du planak; ez du aparteko koskarik izango, PPK gehien-goia baitu.

Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak hezkuntza esparruan ezkuduntza guztiak dituela esaten bada ere, lege-organikoak berdinduko ditu Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrekin. Azken horiek, Frantsez gobernuak erabakitakoa bete behar duten era berean, bete beharko dute Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Madrilan ezarriko duten erreforma.

Ikusi nahi duenarentzat begien bistan geratuko da, beste behin, zeinen beharrezkoa den gure hezkuntza sistema antolatzea: benetan ditugun behar eta arazoetatik abiatuta, eta European eraiki nahi dugun herria marrazteko behar ditugun gaitasunak eta tresnak kontuan hartuta: Frantziako eta Espainiako Estatuetakiko estatistika eta lege-organikoetatik at.

kronika

Hezkuntzan egiten ari diren murrizketak direla eta, hainbat mobilizazioetara eta lanuzteetara dei egin zuten sindikatuek. Protesta horiekin bat egin zuen Ikasle Abertzaleak, IA, murrizketa horiek hezkuntzaren kalitatea kaskartzen dutelako. Bestalde, amaitu zen epea Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan haurrak matrikulatzeko. D ereduan hasiko dira ikasleen % 77, iaz baino % 1,6 gehiago; hau da, iaz baino 419 ikasle gehiagok aukeratu dute euskaraz ikastea. Bi urteko haurren matrikulazioan behera egin dute, berriro, A eta B ereduek. Hain zuzen, matrikulatu diren 18.433 haurretik, 14.162 izan dira euskara hutsean eskolaratzeko eskaria egin dutenak; B ereduan, 3.696k eman dute izena eta A ereduan, berriz, 575ek. B ereduan, 200 plaza galdu dira, eta A ereduan, 100 inguru. Lurraldeka, berriz, Bizkaian 9.430 eskari jaso dira, Gipuzkoan 6.159 eta Araban, azkenik, 2.844.



Nafarroako ikasle berriek D ereduari eutsi diote

Yolanda Barcinak Nafarroako Gobernuko presidente eta Hezkuntza Kontseilari Jose Iribasek Lizarrako (Nafarroa) institutuko eraikin berria inauguratu zuten. Bertan zain zituzten ikasleak irakaskuntzan egin dituzten murrizketen aurka protesta egiteko.

Otsailean, hala ere, murrizketen gaiari matrikulazioak hartu die aurrea.

Kontuan izanik jaiotze-tasak behera egin duela, heldu den ikasturterako D ereduan matrikulatu den haur kopurua mantendu egin da. Bestalde, Hezkuntza departamentuak Nafarroako herri guztietara TIL eredua eramateko egin duen apostuaren gainera, eskola gehienek eta ikastolek iazko eskaera kopuruari eutsi diete.

D eredua eskaintzen duten 70 eskolek 1.300 eskari izan dituzte, eta itunpeko 15 ikastolek, berriz, 485 eskari.

Lodosarekin elkartasuna

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, egoera ekonomiko larrian den Lodosa-ko Ibaialde ikastolak laguntza biltzeko festa egin zuen. Era berean, beste ikastoletako eta eskoletako ikasleen babesa jaso zuten ere, egin diren hainbat ekimenen bidez.

Zenbait erakundetako laguntza jaso zuten: tartean zenbait udalena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Nafarroako Hezkuntza agintariek gogor gaitzetsi zituzten laguntza horiek.

Komunitatearentzako zerbitzuak

Ikasketa prozesuak eta gizartearekiko elkartasun lanak konbinatzen dituen hezkuntza ekimena bultzatuko duela iragarri zuen hezkuntza kontseilari Iribasek. Zenbait adibideren bidez, "ikasketa-zerbitzua" eredua azaldu zuen. Adibidez: erreka bazterrak zaintzen dituzten ikasle taldeak, helduei informatika irakasten dieten institutuko ikasleak, herri batean odol-emaileak lortzeko herriko irratian publizitate kanpaina diseinatzen duten ikasleak eta abar. Jarduera horiek ez dira eskolaz-kanpoko ekintza gisa planteatzen, baizik eta bizitzarako ikasketa moduan, kurrikulumetan txertatuak eta psikologia positiboak, ikasketa komunitatea edo adimen askotarikoak proposamen metodologikoekin bateratuak.

“Gure eskola abandonoa/porrota estatuaren erdia baino gutxiago da, gure lanbide heziketa garatuagoa dago, gure batxilergoan matrikula datuak nabarmen altuagoak, gure aniztasunari erantzuteko bideak landuagoak (...) horra hor zergatik den beharrezkoa hezkuntza alorrean eskumen osoa aldarrikatzea”

Josean Bueno, Pedro Mecho (Eilas)



Eskola Karta berria ez da ongi etorria

Eskola Karta berria onartu zuen Paueko Akademia ikuskaritzak. Ondoren, sindikatuak, gurasoen ordezkariak eta hautetsiei azaldu zizkien erabakiak prefekturan. Eragileek Karta bozkatu zuten, eta kontra agertu baziren ere, Eskola Kartak bere horretan jarraituko du.

Kartaren arabera, 29 eskola publikotan 46 postu murriztuko dira heldu den ikasturtean. Ondorio larriak izango ditu horrek; Ezpeletako (Lapurdi) eskola itxi behar izatea, adibidez, azken murrizketekin baliabiderik gabe geratuko baita eskola aurrera jarraitzeko.

Desagertuko diren posturik gehienak, RASED egiturakoak dira. Egitura horren ardura, zailtasunak dituzten haurrak ohiko eskoletan integratzea da.

Neurriek eragina izango dute, era

berean, hezkuntza elebidunean. Ikas-Bik adierazi zuenez, “irakaskuntza publikoa euskararen transmisio adar nagusia izan behar du lehen mailako 10 ikasletik 7 bertan baitira”. Murrizketen ondorioz, zaila ikusten dute lan hori ongi egin ahal izatea.

Eskola Kartak ezarriko dituen neurrien aurrean haien haserrea agertu dute Ikas-Bi eta Biga Bai elkarteek eta sindikatuek eta mobilizazio ugari egin dituzte. Tartean hainbat eskola okupatu dituzte eta itxialdiak egin dituzte. Hendaiaiko (Lapurdi) irakasle batek, berriz, gose greba egin du.

Baxoa euskaraz egiterik ez

Aurten, berriro ere, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleek ezingo dute baxoa euskaraz egin. Azken urteotan zenbait ikasgai euskaraz egiteko aukera aztertuko zuela jakinarazi zuen Frantziako Hezkuntzak, baina, ez da horrela izan. Beraz, ikasle guztiak euskaraz egin dituzten ikasleek, aurten ere, baxoa frantsesez egitera behartuko dituzte, “Teknikoki posible da, nahikeria da eskas”, zioen Baionako lizeoko zuzendariak euskalgintzako eragileek Baionan egin zuten protestan. Ikasle eta irakasleek gain, bertan izan ziren Seaskako, Euskal Konfederazioko, Kontseiluko, EHEko eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiko ordezkariak.

Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak egin dituen proposamenak ez dira hezkuntza eragile gehienek gustukoak. Espainiako gobernuak egin nahi dituen aldaketak eragina izango dute Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako eskoletan. Eskola porrota murrizteko neurri gisa, DBHko etapa urte betez murriztea eta Batxilergoa ikasturte batez luzatzea aurkeztu dute. Hainbeste hauts arrotu zituen Herritartasunerako Hezkuntzaren ordezkariak, berriz, orain Heziketa Zibiko eta Konstituzionala deitutako ikasgaiak jartzea proposatu dute, helburua, Espainiako Konstituzioaren balioak goratzea delarik. Aipatzekoa da, desadostasuna agertu duten ahotzen artean, Nafarroako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hezkuntza kontseilarienak daudela. Ikasleen berdintasuna arriskuan ikusi dute, eta “kontrolatzeko nahia”, Espainiako eskubiaren alde eginez. Era berean, neurri horiek aldaketa sakonak ekarriko lituzkete eskoletako antolakuntzan eta ikasketan planetan. Ministroak, legez betebeharreko prozedurak bete, eta 2013-2014 ikasturtean ipini nahiko luke martxan Hezkuntza Erreforma.

GAIA

Geroa eskola

*Waldorf pedagogian oinarritutako
eskola bakarra Euskal Herrian*





Geroa eskola librea Trokonizen dago, Arabako Lautandan, Gasteiztik hamar bat kilometrora, hain zuzen. Herri txikia da: 2009ko erroldaren arabera, 49 biztanle zituen orduan.

Lizarratik Gasteizerako bidea egiten zuen “Vasco-Navarro” trenak Trokonizen zuen geltokia da eskolaren eraikin nagusia. Inguruan, zelai ederrak eta zuhaitzak ditu, paraje aparta da. Luze aritu omen ziren horrelako baldintzak betetzen zituen leku baten bila. Izan ere, Waldorf pedagogiak berebiziko garrantzia ematen dio naturari: haurra naturarekin harremanetan egoteari.

Trokonizko eskolara gerturatu zen *Hik Hasi*, eta eskola egun bat bertatik bertara partekatzeko aukera izan zuen *Geroa*ko kideekin.

Haziz doan hazia

Sei ikasturte dira *Geroa* eskola zabaldu zela Trokonizen. Lehen ikasturte hartan, 10 ikasle izan zituen eskolak: 7 neska-mutil, 3., 4. eta 5. mailetan, eta 3 neska-mutil, Haur Hezkuntzan.

Eskola hazten joan da haurrekin batera, eta ikasturte honetan 3 urtetik 12ra bitarteko 50 bat ikasle ditu.

Bereduan ari dira, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren baimen guztiak lortu dituzte jada. Duela bi ikasturte, itunpeko hiru gela dituzte, eskolan lau gela badituzte ere.

Orain, haien ametsa Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eskaintzea da. Bide horretan, “proiektua gehiago finkatu behar dugu, eta jendarteari ezagutarazi behar diogu”, diote bertako kideek. Izan ere, Gasteiz oso hurbil dagoen arren, jende askok ez daki oraindik han daudenik. Eta hori ez omen da lan erraza izango: “Guretzat proiektua ezagutaraztea da gauzarik zailenetakoa, jendartearengana iristea”, adierazi dute.

Waldorf pedagogia Rudolf Steiner (1861-1925) pentsalari eta hezitzailearen filosofian oinarritzen da. Filosofia horrek, haurraren bizi-beharrak ase-

tzeko, haurraren eta haren garapen naturalean oinarritutako pedagogia proposatzen du. Era berean, haurraren garapen-beharretan laguntzea helburu duen hausnarketa-lanean oinarritzen da.

Pedagogia horretan, ikaslea da curriculumaren zioa. Eta haurra heztearen helburua haren gorputz-garapenean eta garapen psikologiko eta kognitiboan laguntzea da, norik bere autonomia lortzeko bidean. Era horretan, heldua denean inguruan era sortzailean jarduteko, libreki hautatzeko eta ekin-tzaile izateko.

Gaske libreak hezi nahi dituzte Trokonizko tren-geltoki zaharrean, baina badakite libre izateko jakintza behar dela. Jakintza eskuratzeko bide horretan, tentu handiz zaintzen dute ikasle bakoitzaren ikasketa-erritmoa.

Geroa eskolan, Waldorf pedagogia osasuntsua dela sinesten dute. Izan ere, “borondatearen arloa zaindu behar da, sentimenduen arloa zaindu eta elikatu behar da, eta gauza bera alde kognitiboarekin”. Ez, ordea, arlo bakoitza bere aldetik, horrek gaixotu egiten baitu.



G

Tren-geltoki zaharreko martxa berria

Geroa eskolako irakasleekin, Aini-zerekin eta Peperekin, hitzordua egin zuten *Hik Hasi*k. Haien hezkuntza-ibilbidearen berri eman zuten, lehenik.

Aurretik Donostian aritu zen lanean Ainize, sare publikoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleekin. Ez zen oso gustura sentitzen, eta beste era bateko eskola baten bila zebilen. Waldorf pedagogiaren berri izan zuenean, Madrilerara joan zen prestatzera. Han ikasi zuen pedagogia hark haurra bere osotasunean hartzen zuela kontuan, arteari garrantzia ematen zitzaioela, eta abar. Prestakuntza amaitu ondoren, Peperen deia jaso zuen *Geroa* eskolan lan egiteko. Orduetik, Trokonizen da familia osoarekin.

Peprek, berriz, 27 urtean sare publikoko irakasle izan ondoren, beste zerbaitek behar zuela sentitu zuen. Lagun batzuen bidez izan zuen Waldorf pedagogiaren berri, eta Madrilerara joan zen hura ere, prestatzera. Horren ondoren etorri zen *Geroa* proiektuan buru-belarri murgiltzea.

Waldorf pedagogiak “batez ere haurraren garapena ongi ezagutzen lagundu” diela diote biek. “Hezkuntzak



elikadura izan behar du, eta, haurraren beharrak ongi ezagutzen badituzu, ongi elika dezakezu”, gaineratu dute.

Geroa eskolan, ikasleek irakasle berarekin egiten dute Lehen Hezkuntza osoa. Horrek, haur bakoitza eta gurasoak ongi ezagutzea ahalbidetzen die, eta konfiantza-giroa eraikitzen eta taldean komunitatea sortzen laguntzen du, gainera. Izan ere, haurrarentzat erreferente nagusia eta garrantzitsua etxea bada ere, eskola ere erreferente bihurtzen da, gertuko jarraipena baldin badago behintzat. Oso garrantzitsua da haurra ezagutzea eta zer behar dituen

jakitea.

Curriculumak, beraz, behar horiek kontuan izanik finkatu beharko litzateke. “Guk pertsonaren irudi bat egiten dugu, eta irudi horren arabera antolatzen eta gauzatzen dugu guztia. Horren atzean, filosofia bat dago: Steinerrek egindako antroposofia”, argitu dute irakasleek. Horregatik, ondo jakin behar da zer eskaini, nola, zer erritmotan, zer den osasuna... “Hezkuntzak osasuna izan behar du-eta”.

Haien ustez, hiru atal daudela esan zuten irakasleek: lehenik, **burua**, garrantzitsua horixe da, beste biak ahaztu gabe, ordea; bigarrena, **erritmoa**, arlo dinamikoarekin eta arimarekin lotzen da, sentimenduen munduarekin; eta, hirugarrena, azkenik, **ekimen-indarra**, gauzak, kostatu arren, egin egin behar direla barneratzea.

Bigarren atalak beste biak erlazionatzen ditu, baina hirurek behar dute oreka. “Jendartean, maiz ikusten dugu buru azkarra duen asko arlo sozialean pobre dabilela; eta hori penagarria da”.





Arlo soziala, garrantzitsua

Arlo sozialari garrantzi handia ematen diote *Geroan*. Horregatik, Waldorf metodologia erabiliz, ikasle talde handiak aukera gehiago eskaintzen ditu ikasle talde txikiak baino: “Irakasleentzat eta ikasleentzat, 20 ikasle baino gehiagoko taldeak egokiagoak dira, eta, adin berekoak badira, hobe dela uste dugu”.

Ikasleasko izanda, nor bere barrutik, etxetik, herritik asko ekartzen duenez, eta hori guztia partekatzen denez, oso aberatsa delakoan daude.

Eskolako gurasoekin duten harremanaz ere jardun dute. Waldorf pedagogian, gurasoek garrantzi handia dute. *Geroako* guraso gehienak “asko” inplikatzeko dira. Etxeko hezkuntzak eta eskolakoak lotura handia izan behar dutela pentsatzen dute Ainizek eta Pepek. Hori lortzeko gakoa, ordea, “irakasle eta gurasoen arteko harremana oso estua izatea da”. Bi aldeek hezkuntza mota horretan benetan sinetsi behar dutela diote, gardentasuna egon behar duela. “Bi aldeek bide berberari jarraitu behar diote”.

Gurasoekin harreman estu hori sustatzeko, gelako bilera egiten dute hile-

an behin. Bilera horretan, taldea nola ikusi duten, zer ikasten ari diren, zergatik, zer lortu nahi duten, zein izango diren hurrengo urratsak, eta abar azaltzen diete gurasoei. Gurasoek hori “asko eskertzen dutela” uste dute, “semea edo alaba non dagoen ikusten laguntzen dizulako, eta hari laguntzeko argibide asko eskaintzen dizkizulako”.

Horrez gain, banakako elkarrizketak egiten dituzte.

Gurasoen parte-hartzea handia da eskolan. Esku artean duten proiektua aurrera ateratzeko lan handia egin behar da, eta gurasoak ondoan dituzte lan horretan. Esate baterako, gurasoak arduratzen dira eskolako garbitasunaz, mantentze lanez, eta haurrek egiten dituzten eskulanetan parte hartzen dute, besteak beste.

Urtean bitan, Eguberritan eta udan, azokak antolatzen dituzte jende gehiagok ezagut dezan eskola. Ekintza horiek, adi berean, proiekturako dirua ateratzeko iturri ere badira.

Hizkuntzaren trataera

Oso kontuan hartzen dute zein inguru soziolinguistikotan dauden eta nondik abiatzen diren. Hizkuntzaren arlo horretan ere, *Geroako* partaidentzat garrantzitsuena haurra errespetatzea da. Orain gutxi Alemaniatik ikasle bat etorri zitzaion, eta hari “ezin diogu bat-batean dena euskaraz egin, hemengo errealitatea ez da euskara giro-



koa”. Haur batzuk Deba bailaratik etortzen zaizkie, eta haien euskaldunak dira. Oro har, baina, *Geroako* ikasleak ez dira euskaldunak. Haien ustez, euskararen arloan “bada beste errealitate bat, sozialki erantzuna eman behar zaiona”.

Haur Hezkuntzan, haurrak sei urte bete arte, ikaslearen etxeko hizkuntza errespetatzen dute, hizkuntza hori ongi finkatzeko. Gero, haurrak bizi dituen bi hizkuntzak lantzen dituzte: helburua, eskolatik ateratzen denean, ikasleak euskara, gaztelania eta ingelesa ongi jakitea da.

Bestalde, oso kontuan hartzen dute kulturantzitasunean bizi garela, eta horregatik, agurrak, esker-emateak eta abar hainbat hizkuntzatan egiten dituzte, “hizkuntzen mundura esna daitezten”. *Geroako* eskolan, hizkuntzak haurraren maitasun osoz sartzen jolan daitezten nahi dute, “behartu gabe, blokeatzeak gerta ez daitezten”.

Haurrak bere emozioak agertu behar ditu, eta hori guztia “ongi dakien” hizkuntzan egin behar du.



Geroa eskola

Irakurketa- eta idazketa-prozesua

Waldorf pedagogia ondo egituratutako metodologia da. Kanpotik, behar bada, ikusten ez bada ere, “irakasleok askatasun osoa dugu gauzak gure erara egiteko”. Eskolan antzera pentsatzen dute denek, eta antzera egiten dituzte gauzak. Kontrakoa pentsa badaiteke ere, irakasleek askatasun osoa dute “nahi dituzten informazio-iturriak hartzeko, epeak luzatzeko edo mozteko”. Irakasleak, azken finean, duen taldearen arabera antolatzen du gela, egokien iruditzen zaion eran.

Irakurketa- eta idazketa-prozesua aurrera eramateko era ere markatuta dago pedagogian. Irakasle bakoitzaren esku dago, ordea, hori guztia aurrera nola eraman: zein ipuin aukeratu, zein adibide jarri, hizkiak, hitzak... Azken

batean, irakaslearen esku dago hizki horiek gelara nola ekarri.

Irakurketa-idazketa metodoa fonetiko-silabikoa da, baina horri zer irudi jarri “irakaslearen esku dago”. Prestakuntza Madrilen egin dutenez, beraiek ipini behar dizkiete hitzei irudi egokiak, eta gauza bera aho-jolasekin, aho-korapiloekin, ipuinekin eta abar: “taldearen arabera jokatu behar duzu”.

Ez da gauza bera taldea euskalduna izatea edo ez izatea, haurrak adin berekoak izatea edo ez izatea... “Oso zaila da, baina, aldi berean, oso polita eta aberatsa”.

Prozesu horretan, garrantzi handia ematen diote eskuz idazteari, *Geroako* irakasleen iritziz “ariketa soziala” da. Hainbat tokitan, ordenagailuaren era-

bilaren ondorioz, eskuz idazteak garrantzia galdu du. Geroa eskolan, ez dute ordenagailurik erabiltzen; adin horretan, asko idazten dute, orria ongi antolatzen dute, koloreak erabiltzen dituzte, eta abar. Eskolan, uneoro ari dira artea lantzen, baita idazten ari direnean ere.

Egindako lan guztia koadernora eramaten dute neska-mutilek. Baina, horretarako, adierazi beharrekoak landuta eta txukun egon behar du. Norberak jartzen du bere koadernoan, ahalik eta txukunen... Izan ere, hori da ikasleek duten ikasliburua.

Geroa eskolan, ez dute bestelako ikaslibururik erabiltzen. Hala ere, ongi betetzen dituzte oinarrizko curriculum ofizialak. Haien ustez, “curriculum horiek oso ongi oinarrituta daude”. Eta gero eta hobeto dakite maila bakoitzean zer irakasten duten, eta zergatik.

Koadernoak badu, ikasliburua ordezkatzear gain, beste helbururik: haur bakoitzaren lana nonbait jasotzea, alegia, ikusgai eta ikusgarri jartzea. Bakoitzak bere edertasuna bilatzen du, bere koloreak... Oso bideratuta, akaso, baina norberak norberarena eginda.

Aldi berean, garrantzi handia ematen diote espresioari: ahozkoa, idatzia, marrazkia, eskulana, erritmoa, arte eszenikoa, eta abar. Hiru hilabetean behin, ikuskizun bat antolatzen dute gurasoentzat: deklamazioa, olerkiak, kantuak, ariketa erritmikoak, antzerkiak eskaintzen dizkiete. Azken finean, “hau da gelan egiten duguna, eta ongi prestatutako lan hori guztia erakusten diegu gurasoei”.





Eskola-egun bat *Geroan*



Galdera bat zebilen bueltaka airean. Nolako ote da eskola egun-bat *Geroa* eskolan? Ainizek eta Pepek erantzun zioten galderari.

“Irakaslea, normalean, ikasleak baino ordu erdi lehenago sartzen da gelan: gauzak antolatzeko, ezustekoren bat prestatzeko... Ikasleak datozenean, banan-banan egiten zaie harrera begietara begiratuz, eskua emanez eta gertuko zerbaiten gainean hitz eginez. Horrek izugarritzko segurtasuna, gertutasuna eta lasaitasuna ematen die ikasleei. Kontuan hartzen dituztela eta balioesten dituztela sentitzen dute. Askotan errazten du horrek ondorengo lana.

Harreraren ondoren, txapinak janzten dituzte, gelan eroso sentitzeko.

Ikasle bakoitzak badaki, gutxi gorabehera, egun bakoitzean zer egingo duen. Horrek ere segurtasuna ematen dio, eta asko laguntzen dio.

Ikasmahaietan esertzen direnean, egunaren gainean hitz egiten hasten gara: zeregundean, zergatik deitzen den horrela, zer berezitasun duen, eta abar. Horren guztiaren asmoa neska-mutilei munduan kokatzen laguntzea da. Eguneroko horiek lasaitasuna ematen diote haurrari.

Ondoren, berrien atala dator: zer gertatu den, norberak zer dakarren, zergatik dagoen norbait triste, pozik, haserre edo irrikaz... Horrela, arlo soziala eta emozionala lantzen ditugu. Kontatzen ari direna lagunak entzuten ari direla

ohartzen dira haurrak, entzuten zaiela sentitzen dute, errespetatu egiten dituztela. Aldi berean, entzuten ikasten dute, eta hori guztia lasaitasunez eta pixkanaka egiten da, prozesu bat da.

Gero, Steinerren olerki bat esaten zaie, on egiten duen guztiari eskerrak emateko. Horrela, arlo espirituala eta erritmoa lantzen ditugu. Horrekin batera, buruko ariketa matematikoak egiten ditugu, abestu egiten dugu eta musika lantzen dugu.

Gero, aurreko egunean landutakoa gogoratzen dute, koadernora eramaten dute eta gauza berriak ikasten dituzte. Normalean, ikasteko gogo handiz egoten dira.

Jolastera ateratzen direnean, ingurune egokia dute: zelaia, landareak, zuhaitzak.

Jolastu ondoren, beste arlo guztiak lantzen dira: musika, eskulanak, zizelkatzea, ingelesa, baratzezaintza, lorezaintza, akuarela.

Ahalik eta material naturalenak erabiltzen saiatzen gara: egurra plastikoa erabili beharrean, koloretako argizariak plastilinen ordeztuz, eta abar.

Kandelak pizten ditugu, eta horrek giro egokia sortzen du; goxotasuna. Estetikari ere garrantzia ematen diogu. Gela bakoitzean, urtaroren mahaia dago, urtaroiari dagozkion produktuekin, eta ikasle bakoitzak nahi duena ekar dezake: gaztainak, perretxikoak, hostoak...

Ikasle bakoitzari olerki bat egiten zaio, haren gauza onak goraiatuz, haren izaeran ikusten diren gorabeherak aipatuz eta hobetzeko dituen azalduz. Oso era poetikoan idazten saiatzen gara, eta ikasle bakoitzak berea ikasten du besteen aurrean esateko. Konturatu orduko, denek denek olerkiak ikasiak dituzte”.

Geroa eskola

5. eta 6. mailakoekin



Ainizek eta Peppek kontatutakoa zuzenean ikusteko aukera izan zuen *Hik Hasi*. Ona hemen, ongietorria egin ondoren, aurreko egunean ikasitakoa berrikusi zuten uena:

Andereñoak: Mesopotamia zenak zer izen du gaur egun, i...

Ikasleak: Irak.

An.: Zergatik zen hain garrantzitsua Mesopotamia?

Ik.: Lurrak oso onak zirelako. Ibaiak gainezka egiten zuten, eta urasko egoten zen, eta lurrak oso emankorrak ziren.

An.: Gizakia nola bizi zen?

Ik.: Ez zuten etxe finkorik, nomadak ziren. Lurra ona zenez, ortuak egiten hasi ziren, eta haiek zaindu behar izan zituzten, eta, hala, lehen zibiliza-

zioa sortzen hasi zen...

An.: Zer herri sortu ziren?

Ik.: Babilonia, Ur (Persiako Golkotik gertu)...

An.: Eta Babiloniari buruz zer dakigu? Nola funtzionatzen zuen? Zein zen agintaria?

Ik.: Erregea zegoen... Errege bat baino gehiago... Eta Babelgo eraikina... Orain obra-hondakinak daude (adreiluz eta lurrez egiten zituzten eraikinak...).

An.: Nolakoak ziren hango herriak?

Ik.: Erregeak lur handi baten erdian jasotzen zuen eraikina...

An.: Nola deitzen zitzaion eraikin hari? Zi...

Ik.: Zigurat, dorre altuak. Goian tro-

nua egoten zen, eta izarrei begira egoten ziren, eta izarrak mugitzen zirela ohartu ziren... Haiei jainkosen izenak jarri zizkieten, bakoitzari bat, egun hartan gehien eragiten ziena: Marte, Venus, Merkurio, Saturno, Urano, eta baita Ilargia ere. Horrela osatu zen aste eta egunen egutegia. Gaur egungo astegunaren izenak zeruaren eraginez sortu ziren.

An.: Zer ikasi genuen atzo?

Ik.: Gurpilen sorrera, barkuak nabigatzeko, buztzingintza, artisautza, idazketaren...

An.: Zer izeneko idazketa zen? Ku...

Ik.: Kuneiformea, buztinezko xaflen gainean egiten zutelako.



Haur Hezkuntza: *Geroa* eskolan hastean ongietorria

Egokitzapena haurren beharren arabera egiten dute *Geroa* eskolan. Lehen egunetan, gurasoekin etortzen dira haurrak. Jolasean askatzen direnean eta lasai daudenean, gurasoak desagertzen hasten dira. Ondorengo egunetan gurasoekin etortzen dira, gurasoak agurtu egiten dituzte, eta, beharrik ikusten ez bada, normal eskolatzen dira. Ez dago, beraz, egokitzapen plangintza zehatzik.

Normalean, 2, 3, edo 4 urterekin eskolatzen dira. *Geroan*, Haur Hezkuntzako ikasleak nahastuta daude, adin guztietako haurrak gela bakar batean daude.

Horrela izaten da, gutxi gorabehera, eskola-egun bat: haur bakoitzari ongietorria egin ondoren, ekintza zehatz batekin hasten dira: ogia, blokeak, akuarela, sagarrak zatitu eta konpota egin, eta abar. Haurrak ez daude parte hartzera behartuta. Ekintza hasi orduko, baina, batzuk beren kasa hurbiltzen dira, eta besteek ere laster egiten dute bat gainerakoekin.

Horren ondoren, erabilitako gauza guztiak jasotzen dituztenean, haurren intereseko gaien inguruan hitz egiten dute, eta erritmo-saioa egiten dute. Gero, komunitetik pasatu, eta eskuak garbitzen dituzte jan aurretik, ohitura onak hartzeko.

Garrantzi handia ematen zaie urtaroei, eta asteko egun bakoitzak bere janari zehatza izaten du. Hori guztia hasieran esaten zaie, jakinaren gainean

egon daitezen. Izan ere, horrek segurtasuna ematen die.

Jan ondoren, kanpora irteten dira ordubetez jolastera. Gero, gelara itzultzen dira, eta zerbait lasaia egiten dute: gehienetan eseri egiten dira, eta hizketan aritzen dira, irakasleak ipuin bat kontatzen die, eta abar.

Irakasleak une dinamikoen eta lasaien arteko oreka bilatzen saiatzen dira. Izan ere, "halako dinamika egokia dela" pentsatzen dute erritmorako, arnasketarako eta osasunerako.

Haurrek atsegin dute tarteka ezustekoak izatea edo lekuz aldatzea. Horegatik, gustukoa dute herriko parkera

joatea, edo inguruko ibilbideetan barrena ibiltzea.

Haur Hezkuntzako haurren eskolatzea goizeko 9:30etik 13:30era da. Arratsaldeko saioa, berriz, 3:30etik 4:30era izaten da. Arratsaldekoa, ordea, ez da nahitaezkoa, nahi dutenak soilik gelditzen dira.

Gelditzen direnek elkarrekin bazkaltzen dute, eta, ondoren, jolasean aritzen dira. Arratsaldeko saioaren helburu nagusia haurrak gustura egotea da: siesta egin nahi badute, siesta egiten dute. Tarte hori sozializatzeko garaia ere bada.



idoia **trenor** **eta** maider **gonzalez**

ELKARRIZKETA

Bilgune feminista.

“Eredu hau zalantzan jartze hutsarekin gauza asko ari dira egiten irakasleak hezkidetzaren alde”



maider gonzalez idoia trenor

E

“Gaur egungo hezkuntza sistema ez da hezkidetzalea eta ez da parekidea, batere ez estrategikoa.”

“Irakasle askorekin hitz egitean konturatzen gara gehienek indarkeriatzat eraso fisikoa bakarrik hartzen dutela.”

Hamar urteko ibilbidea ospatzen ari da Bilgune Feminista. Sorreratik, Bilguneke kideek hezkuntza, jendarte aldaketarako landu beharreko eremu estrategiko eta ezinbestekoa dela ulertu izan dute. 2003. urtean *Minimoen Taula* osatu zuten hezkuntza eragile ugariarekin hezkidetzatza posible izan zedin konpromiso batzuk markatuz. Hurrengo urtean, *Hezkidetzatza Gida* lan-tresna praktikoa sortu zuten, hezitzaileei zuzenduriko aholku eta proposamen multzoa; eta geroago gida praktikara eramateko tailerrak sortu zituzten. Orain, Hezkidetzatza *Lau Haizetara* egitasmoa prestatu dute, hezkuntza eragileei formazio, aholkularitza eta elkarlan feminista proposatzen dien plan integral bat.

Maidar Gonzalez eta Idoia Trenor hezkuntza sistema barrutik eraldatzeko lanetan ari dira, errotik kontzeptu aldaketa bat proposatuz: Hezkidetzatza. Biek pasioz eta arduraz hitz egiten dute heziketaz eta feminismoaz, eta bien uztarketatik etorriko den jendarte aske, kritiko, justu eta solidarioaz.

Historian zehar, aurrerapauso asko eman direla diote, baina oraindik minimo asko ez direla betetzen diote. Edukietan, materialetan, metodologian, ebaluazioan, ikastetxearen antolamenduan edota espazioaren eta denboraren erabileran eragin behar dela diote, ezkutuko eraso sexistak saihesteko.



Hezkidetzatza ari garenean, zertaz ari gara zehazki?

Maidar Gonzalez: Hezkuntza sozializatorako oinarriko bitarteko bat izanik, Bilgune Feministak estrategiko ikusten du. Jendartean dauden ereduak birsortzeko baino, jendarte justuago bat eraikitzeko eta eraldaketarako balio behar du hezkuntzak. Zentzu horretan, hor kokatzen dugu hezkidetzatza. Gure oinarria da, feminismitik ulertzen dugu hezkidetzatza. Pertsonak hezteaz ari gara, osotasun batean, garapen osoa kontuan izanik. Sistema horrek ezartzen digun sexu-genero sistema eta horrek dakarren zapalkuntza kontuan izanik, parekidetasunean hezte da hezkidetzatza, pertsona osoak hezte, garapen integral bat bilatzea. Tradizionalki gizonezkoei eta emakumei egokitu zaizkien rol horiek gaindituz hezi nahi dugu, emakumearen egoera zapaldu eta diskriminatua gainditi eta aurrerapausoak ematea litzateke hezkidetzatza. Guk jendarte justuago eta askeago batean sinesten dugu. Hezkidetzatza kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da.

Bilgunea sortu zenetik egon da Hezkidetzatza atala, hasieratik jo duzue adar estrategikotzat heziketa?

M. G.: Bai, duela hamar urte Leitzan egin ziren emakume abertzaleen topaketetan sektore estrategiko batzuk definitzen genituen, eta hezkuntza zen horietako bat.

Idoia Trenor: Orduan irakaskuntza deitzen zitzaion, irakaskuntza formale-ra bideratuago baitzegoen adar hori; gero aldatu genuen ikuspegia, eta zabalago hartu genuen, hezkuntza ez-

formalean ere eragitea oso garrantzitsua izan zitekeelako.

M. G.: Bilguneak betidanik ikusi du hezkuntza sektore estrategiko bezala. Soziazio prozesuan hainbat eragile daude: familia, komunikabideak, teknologia berriak, lagun harremanak... baina hezkuntza bera –formala eta ez-formala ere- klabea da pertsonaren soziazio prozesu horretan. Hor hezten gara, hor jasotzen ditugu balioak, hor sortzen gara pertsona moduan. Eskolan eragitea ezinbestekoa ikusten dugu.

Emakumeen Eskubideen Kartako balioetan oinarritzen gara hezkuntzaren zutabeak finkatzean: parekidetasuna, elkartasuna eta askatasuna. Horretan hezi nahi dugu, pertsona burujabeak izan gaitez; kritikoak; inguruarekin elkarbizitzan; geure gaitasunetan sinetsiz; geure buruak eta inguruokoa zainduz hezi gaitez. Elkartasuna eta parekidetasuna diogunean, sexu-genero zapalkuntza gainditu beharra azaltzen dugu. Guretzako klabea da hausnartzea zer sistematan bizi garen, patriarkatuaren zapalkuntza identifikatzea, eta hortik heziketa integral bat osatu behar dugu, parekidetasun, elkartasun eta askatasun baloreetan heziz.

Bilguneak hamar urte egin ditu, eta zer nolako balorazioa egiten duzue hezkidetzan egindako lanaz?

M. G.: Irakurketa orokorra eginda, aldaketa batzuk eman dira, aurrerapausoak egin dira eta horiekin oso pozik gaude. Duela 10 urte hezkuntzaren egoeraz hausnartu eta minimoen taula osatu zuten. Orain begirada bat botatzen badiogu taula horri, gauza asko antzeko daudela ikusten duzu.

I. T.: Aurrerapausoak egin dira, materiala dago, eta jendearengan intentzioa dago, baina minimoak ere ez dira betetzen. Duela 10 urteko behar antzekoak ditugu oraindik ere.

M. G.: 10 urteko ibilbidearen balantzea egin genuenean kezkatu egin ginen, zelan gauden ikusi eta minimo horiek ez direla betetzen ikusteak asko



kezkatu gintuen. Hala ere, badago materiala eta pausoak eman dira. Eragileekin egon gara, Hezkidetzaren Gida bezalako materiala sortu dugu, formazioa eskaintzen zaie hezitzaileei, guraso-elkarteei, begirale-taldee; tailerrak eskaini ditugu, formatu gara, kanporako eskaintza ere osatu dugu... Ditugun baliabide, zailtasun eta mugekin, Bilguneetik aurrerapauso politikak eman ditugu, eta kontzientzia sortzen joan gara.

I. T.: Hezkidetzaren gidak ikaragarriko harrera eduki zuten; hortik tailerrak etorri ziren; tailerretatik *Hezkidetzaren Lau Haizetara* egitasmo integral hau... eta auskalo hurrengo urtean zer egingo dugun.

Eta atzerago joanda, historiari begiratzeko eskatuz, aurreratu al dugu hezkidetzan?

M. G.: Hezkuntza sistema formalari begirada bat ematen badiogu historian zehar, gogoratu behar dugu duela ez hainbeste urte egoera nahiko latza zela emakumeentzako, eta gu historiaren ondorengoak gara. Ezin dugu ahaztu duela ez hainbeste urte emakumeek hezkuntzako eskubidea ukatua zutela; eta ondoren, hezkuntzan parte hartu ahal izan zuten arren, oso modu ezberdinean parte hartu zutela, oso *curriculum* desberdinarekin, eta norabide zehatz batekin. Etxerako eta zaintzarako hezten zen emakumea, eremu pribatuari begira. Gizonezkoak aldiz ez.

Orain eredu mistoa daukagu, eta elkartu ginen neskak eta mutilak geletan, eta bi *curriculum* ez eta bat bakarra jo-

rratzen dugu, baina zer *curriculum*? Zer eredu? Zer edukirekin? Gizonezkoek jarraitzen zuten eredu jarraitu du *curriculum*ak.

I. T.: Edukiak aldatu dira, baliabideak aldatu dira... gauzak aurreratuz doaz pixkanaka, baina oraindik sistemak aldaketa bat behar du, eta aldaketa horrek ezin du azalekoa izan; guk erroko aldaketa ikusten dugu beharrezkoa.

M. G.: Jendartea bera botere harreman batean oinarritzen da, sexu-genero dikotomia, versus edo antitesi horretan oinarritzen da jendartea, horrek dakartzan indarkeria egoerekin, eta eskolak eredu hori erreproduzituko du. Hori identifikatu egin behar dugu lehenik, gero ikusiko dugu indarkeria mailak nolakoak diren; zer esparrutan ematen diren; sotilagoak ala bortitzagoak diren... Eta horretan denok dugu inplikazioa eskolak bai, baina baita komunikabideek, familiak...

Gaur egungo hezkuntza sistema ez da hezkidetzalea eta ez da parekidea, batere ez. Horretan aldaketa globala eta errotikoa behar dugu, badakigu oso zaila dela, baina pausoak ematen goaz eraldaketa hori eman dadin.

Hezkidetzaren Lau Haizetara proposamenaren abiapuntu bezala ikastetxea proposatzen duzue. Zergatik?

I. T.: Ordenatzeko modu bat da. Pertsona baten hezkuntza prozesuan agente pila batek parte hartzen dute, komunikabideetatik hasita, familiak, lagunek... gauza asko dira hezkuntza prozesuan eragiten dutenak. Ikastetxean bertan parte hartzen dute agente ho-

idoia **trenor** maider **gonzalez**

E

“**Beti errepikatzen da irakasleak zeinen bakarrik sentitzen diren hezkidetza landu nahi dutenean euren zentroan.**”

rietako askok, eta hori guztia ordenatzeko modu bat da, guraso elkarteak, extraeskolarrak, elkarteak... gauza asko barnebiltzen ditu eskolak. Modu kontzientean heziketa jasotzen dugun lekua da eskola, baina horrek ez du esan nahi hezkuntza guztia ikastetxean bolkatu behar denik, herriratu egin nahi dugu. Horregatik, gure ustez, beharrezkoa da ikastetxeak berak, herri eragileekin eta erakunde nahiz administrazioekin elkarlanean hezkidetza lantzeko erabaki irmoa hartzea eta urratsez urrats hezkidetzaren lanke-tarako plan integrala martxan jartzea, aurre diagnostiko eta ondorengo eba-luazio sistema egokiarekin batera.

M. G.: Lotura desberdina izan liteke herri txiki batean edo hiri batean, oso errealitate ezberdinak daude tokian-to-kian. Baina guztiak barnebiltzen dituen eremu bat da ikastetxea. Horregatik hartzen dugu abiapuntutzat.

Hezkidetza Lau Haizetara egitasmoan ikastetxean parte hartzen duten agente horiekin guztiekin –irakasle, hezitzaile, guraso...- gauza konkretuak planteatzen dituzue.

I. T.: Zentro bakoitzak errealitate bat du, oso ezberdinak izan daitezkeenak. Bakoitzak behar desberdinak izango ditu. Horregatik, diagnosi edo azterketa bat egin behar da lehendabizi, tokian-tokian zentro bakoitzean zer nolako egoera duen aztertu behar da, aldaketa gauzatzeko non eragin daitezkeen begiratu behar da.

Hezkidetza Lau Haizetara egitasmoarekin eskaintza berezitua eskaintzen dugu, zentrorik zentro, herririk herri. Plan integral bat egitea proposatzen dugu, eta lehenengo pausoa diagnosis egitea izango litzateke, eta diagnosi horren barruan zehaztuko litzateke nondik hasi. Ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen egoera zein den deskribatzen saiatuko gineteke diagnostikoaren bidez. Helburuak zehaztu ondoren, gero estrategia konkretuak erabiliko dira, dela gurasoentzako kontzientziazio kanpaina bat egitea, edo delakoa.

Guk eskaintzen dugun zerbitzua oso pertsonalizatua izango da, zentro bakoitzaren beharrak zein diren identifikatu eta aldaketa eman dadin zerestrategia landuko diren zehaztuko dugu.

M. G.: Diagnostiko berezitu batetik abiatu behar dugu, inguru horri dagokion diagnosi bat egin eta gabeziak eta lehentasunak identifikatutakoan estrategiak markatuko ditugu.

Sistemari dagokionez, Hezkidetza Lau Haizetara proposamenak kontzeptu aldaketa bat dakar, errotiko aldaketa bat. Sistema –jendartea dagoen bezala- bi sexu-bi generotan eta horrek dakarren botere harremanean oinarritua dago, baina zuek hori deseraikitzea proposatzen duzue.

M. G.: Lehenik eta behin bizi garen sistema kapitalista eta patriarkal horren irakurketa egitea ezinbesteko ikusten dugu, sistema horrek emakumea zer menpeko harremanetan eta diskriminazio egoeratan uzten gaituen konturatzeko. Hortik aurrera -hezkidetza gidarekin egin genuen, eta proposamen honekin ere horixe planteatzen dugueremuz eremu egin behar dugu analisia.

I. T.: Askotan zirkuluan sartzen gara, eta ez gara konturatzen. Hezkuntza ez da satelite bat, gizartearen isla da. Sistema bera baliabideen eta edukien aldetik, agian, berritzen joan da, baina sistema bera ez da aldatu. Guk hori jartzen dugu eztabaidan. Aldaketarako tresna bezala ulertzen dugu hezkuntza –eta denok ulertzen dugu aldaketarako tresna gisa, ze gobernu aldaketan den lehenengo gauza egiten dute hezkuntzan eragitea-, eta horregatik ikusten dugu ikuspegia errotik aldatu behar dugula.

M. G.: Baina badakigu hori oso lan zaila dela, jendartea eraldatzea, sistema errotik aldatzea eta harreman eredu berriak sortzea oso lan zaila da, eta nekeza, eta ez da egun batetik bestera lortzen den helburua izango. Baina bitartean eragin nahi dugu, bide horretan lagungarri diren aldaketetan eragin nahi dugu.

Zentro batek ez badu hartzen horrelako proiektu bat aurrera eramateko konpromisoa, zer tarte gelditzen zaio irakasleari? Bere borondatearen esku geldituko da, ezta?

I. T.: Hasieratik topatu dugun zailtasuna izan dugu hori. Alde batetik, irakaslearen bakardadearekin topo egin dugu; eta bestetik, lanerako dituen baldintzekin. Mugikortasun handia dute irakasle askok; zuzendaritzaren menpean; euren errealitatetik oso urrun daude; eragin eremua ikastetxe barruan gelditzen da; lanez gainezka, denbora gabe... Oso errealitate zailak dituzte, eta ez da kontenplazten hezikidetzak tarterik izatea ordutegian, adibidez. Hala ere, irakasle asko daude aldatketak egin nahi dituztenak, baina ez daketinak oso ondo gauzak nola egin. Kasu hauetan, egitea da onena, egin, zain egon gabe egin. Geure buruan sinetsi eta egin. Edozer gauza egin dezakezu, borondatea baldin badaukazu. Eredu hau zalantzan jartze hutsarekin gauza asko ari dira egiten irakasleak hezikidetzaren alde.

M. G.: Lekuz leku errealitatea oso desberdina da, gainera. Eskola txiki bat edo institutu makro bateko errealitatea oso desberdinak dira. Baina guk planteatzen dugu norberak maila pertsonalean, hezitzaile bezala, gauza asko egin ditzakeela. Lehenengo kontzientziaziotik hasita, eta konpromisoa edukita, norberaren esku-hartze horietan hezikidetzatik jokatuz gauza asko egin ditzake, gainera, material asko dauka eskura.

Beste aldetik, konpromiso falta handia ikusten da, bai lege aldetik, bai ikastetxei dagokienez ere, ez zaio garrantzirik ematen hezikidetzari, eta ez da erdigunean jartzen. Kontuan izan behar da hezkuntza komunitatean modu globalean eragitea oso zaila dela. Horregatik, planteatzen dugu nor bere lanean aurrerapausoak eman ditzala, formazioa eta kontzientziazioa landuz. Maila globalean edo makroan aplikatu ezin denean, mikroan aplikatu saiatu behar dugu, maila pertsonaletik hasita.



Eta nola gainditu dezake irakasleak bakardade hori?

I. T.: Hamar urte daramatzagu horretan, eta identifikatuak dauzkagu beharrak, eta horietako bat elkartzeko premia da, sarearena, beti errepikatzen da irakasleak zeinen bakarrik sentitzen diren hezikidetzak landu nahi dutenean euren zentroan. Bakardade horri aurre egiteko saretu egin behar da, blog bat sortu genuen foro bat izan zezaten, konpartitu zezaten. Blogaren inguruan mintegiak egin genituen herrialdean, eta behin eta berriz ateratzen zen gaia zen ez dagoela gune bat hitz egiteko, elkar trukatzeko... Blog horrek bere mugak ditu, baina elkartruckerako, eztabaidarako eta hausnarketarako gune bezala sortu zen. Gauza asko dago sarean, eta animatu behar dugu jendea euskaraz sor dezan.

Bi generotan oinarrituriko hezkuntza sistema honek dakartzan korapilo horietara etorriz, emakumea egoera zapalduan mantentzen da, baina, gizonekoari ere rol batzuk atxikitzen zaizkio.

M. G.: Guk beti esaten dugu. Jaio aurretik lehenengo galdera izaten da ea neska edo mutila den. Jaio aurretik badaukagu karga, eta bizkarrean eramango dugun motxilatoa betetzen hasten gara jaio aurretik. Gero, neska jaio edo mutila jaio, motxila hori era batera edo bestera beteko dizu jendarte eta sistema honek, rolak ezarriko dizkizu, hau da, nolakoa izan behar zaren; nesken

kasuan ahulagoa, gozoagoa... eranskin asko jarriko zaizkizu; eta mutilen kasuan, beste batzuk: lehiakorra, ausarta, negarrik egiten ez duena... Sozializazio prozesu horretan -bai eskolan ematen dena, familian, lagun artean edota komunikabideen bitartez- hasten gara jasotzen karga hori. Norberak bere motxila eraman beharko du, norbera saiatuko da norbera izaten, pertsona moduan garatzen, baina beti motxila hori izango du bizkarrean. Sozializazio prozesu horretan argi dagobi sexuek dutela galtzeko, eredu hauek mugatu egiten baikaituzte.

Eredu honek femeninoa eta maskulinoa bereizten ditu, eta eredu horietan apur bat mugitu gaitzake, baina gehiegi atera gabe, mugak ezartzen dizkigu. Barietate bat badago, emakumezkoak har ditzakegu gizonen rol horiek, rol horiek onartuagoak daudelako edo ondo ikusiak daudelako, ez dago hain gaizki ikusia emakumeak gizonaren rolak hartzea, beti ere sistemaren barruan egiten baduzu; gizonen emakumezkoen rolak hartzen dituztenean zapalduagoak izaten dira normalean, ze jendarteak rol horiek gaizki ikusten ditu, gutxietsi egiten ditu emakumeak esleitzen dizkion rol horiek. Rol femeninoak gutxietsiak daude.

Gizonen sozializazio prozesu horretan muga asko eta errepresio asko jasaten dute. Eredu maskulino horretatik ateratzen den mutila oso zigortua izango da. Prozesu horretan muti-

maider gonzalez idoia trenor

E

“ Hezitzailearen
jarrera pertsonala behar-
beharrezkoa da,
kontzientziazioa klabea da
eraldaketa benetan egingo
bada. ”

lek ere asko sufritzen dute, eta gauza asko galtzen dituzte. Hala ere, ez dugu perspektiba galdu behar: jendarte honek botere harremanak sustatzen ditu arra –gizonezkoa, maskulinoa- gailenduz eta haiei egokitzen dizkien ezaugarriak beti goian egongo dira.

I. T.: Horrela enfokatzan dugu mutilekin egiten dugun lana ere. Bigarren Hezkuntzan taldeak bereizten ditugu eta lanketa desberdinak egiten ditugu neska eta mutilekin. Mutilen artean ikeragarritzko gauzak ateratzen dira. Eurak ere mugatuak sentitzea gizarte honen banaketa binarioaren ardura dela ohartzea oso interesgarria da. Guk planteatzen dugu denok galtzen dugula sistema honek ezartzen dizkigun rol, karga eta muga horiekin. Horregatik hitz egiten dugu pertsoneri buruz.

Baina neskek galtzeko gehiago dute, ezta?

M. G.: Nik beti esaten dut motxila batek besteak baino gehiago pisatzen duela. Neskok eramaten dugun motxilak gehiago pisatzen du; ez dira berdinak, eta ez daude berdin baloratuak neskei eta mutilei ezartzen zaizkien rolak. Jakin behar dugu emakumea diskriminazio egoera batean kokatzen dela eta gizonezkoa gailendu egiten dela sistematikoki, eremu guztietan. Soziazio prozesu horretan muga asko eta sufrimendu asko izan ditzakete gizonezkoek, baina beti ere posizio pribilegiatu bat dute. Hori garbi utzi behar dugu, ahaztu egiten baitzaigu.

Era berean, sistema onartzen duten gizonezko askok indarkeriaren bidez soilik dakite komunikatzen.

I. T.: Horrela hezi gaituzte. Emakumezkoak sentiberagoak izan behar gara, beldurtiagoak, negartiagoak, babestuak egon behar dugu... eta mutilak alderantziz.

M. G.: Gizonezkoak lehiakortasun horretan heziak izan dira eta askok oso normal ikusten dute gauzak indarkeriaren bidez lortzea. Sentimenduen adierazpenak askotan ukatuak izan dituzte. Gauzak lortzera ohituak daude,



indarkeriaren bidez. Euren heziketa garapen horretan dauzkaten estrategiak askotan oso mugatuak dira, eta ez dakite indarkeriarekin ez bada lortzen edo adierazten, eta horrek arazo asko sortzen dizkiete; arazoak bai eskema horretan sartzen ez diren mutilei, baina baita eskema horietara egokitzen diren gizon horiekin harremanak dituzten pertsoneri ere, dela lankide, lagun, bikote...

Sexualitatearen eredu hegemonikotik harago “sexualitateak” kontzeptua egokiago deritoxue zuen egitasmoan. Zergatik? Zertan aldatuko lituzke gauzak kontzeptu aldaketa honek?

I. T.: Mundua ikusteko modu berri bat planteatzen dugun momentutik, sexu-genero sistema binario hori apurtzera dator kontzeptu hori. Menpeko egoera batean egonda, neskoiek eskaintzen zaigun sexualitate eredu bakarra koitora mugatzen da, ikusi besterik ez dago zer nolako sexu hezkuntza jasotzen den ikastetxeetan: Kondoia jartzen erakusten dute. Behin pluralizatzen baldin baduzu, esaten ari zara ez dagoela eredu bakarra.

M. G.: Nagusitzen den eredu heterosexuala eta koitora bideratua da, eta nik gehiago esango nuke, erreproduziora bideratzen da. Oraindik horrek izugarritzko karga dauka, eta hori ez da kasualitatea. Guk kokatzen dugu patriarkatuan, sexu-genero banaketa horrek emakumea zapaldu egiten du, oso estrategia zehatza eta kontzientea da. Emakumea kontrolpean mantentzeko modua da. Lehen beldurra aipatu dugu, eta beldurraren bitartez ere emakumea kontrolatzen da eta sexualitatearen bitartez ere bai. Eredu heterosexua-

la, koitora bideratua, eta erreproduktzioa bideratua dago. Oso modu ezberdinean hezten eta bizitzen da sexualitatea mutila ala neska izan; nesken kasuan beti sentimenduen kontua ateratzen da, askoz modu globalagoan bizi dugu sexualitatea. Gizonen kasuan, beste modu batean hezten da, zerbait azkarrago da, orain eta hemen. Txikitatik sartzen digute motxilan sexualitatea nola bizi behar dugun, bai nesko eta baita mutilei ere. Eta kontuz, heterosexuala izan behar duzu, hortik ateratzen bazara, errepresioa jasoko duzu! Eta gainera, ama izan behar duzu, eta erreproduktziorako izan behar duzu sexua; edo bikote harreman bat eduki behar duzu bizitza osorako izango dena...! Hori da ipuinetan eta komunikabideetan ikusten duguna gaur ere. Maitasun erromantikoaren ideia klabea da.

Sexualitatea plazeraren kudeaketa da, plazera da oinarria. Sexualitatea continuum da, jaio garenetik hil arte bizi dugu sexualitatea. Jendarteak berak, familiak, eskolak... erreprimitu egiten du oraindik ere sexualitatea, tabu asko daude oraindik. Nahiz eta iruditzen zaigun asko aurreratu dugula, guk uste dugu plazeraren kudeaketa hori guztiz mugatua eta moztua dagoela. Plazeraren kudeaketa modu anitzean ulertu behar dugu, norabide askotakoa da, eta ongi sentiarazten zaituen horretan zentratua. Sexualitateak kontzeptua erabiltzeko pertzepzioa aldatzen lagun dezake.

Eta zer egin ipuinek eskaintzen diguten maitasun erromantikoaren ideologiarekin?

I. T.: Txiki-txikitatik sartzen digute maitasun erromantikoaren ideia, eskolan irakurtzen ditugun ipuinetatik hasita, *Disney*ko filmak eta gaur egun zinema ikus dezakegun edozein filma, telebistako edozein telesail...

M. G.: Maitasun erromantikoaren ideia kontrol mekanismo bat da, sexualitatea bizitzeko ezartzen diguten eredu bezala. Maitasun erromantikoaren ideia emakumea kontrolpean mantentzeko mekanismoa da, emakumea



beti zain dago, salbatzailearen zain, pasiboa da, iniziatiba gabea... gizonezkoak dauka beti paper aktibo hori. Sexualitatearen kontrola, maitasun erromantikoarena eta txikitatik sartzen diguten beldurra –“kontuz otsoarekin, kontuz bakarrik ibili...”- kontrol mekanismoak dira.

Hortaz, oso inportantea da bestelako ereduak ezagutzeko.

M. G.: Bai, baina eredu horiek ezagutzeko landu egin behar dira, eta landu behar dira edukien bitartez, materialen bitartez... curriculum ezkutu horren bitartez ere bai, hezitzaile moduan egiten dituzun interbentzio eta lanaren bitartez; komunikabideetatik, lege eta hezkuntza sistemak berak ezartzen dituen oinarrietatik... oso inportantea da zentzu globala ulertzea, eta emakumea rol pasibotatik atera eta subjektu aktiboko roletara pasatzea. Etengabe ezartzen gaituzte emakumeak rol pasibo horietan, eta niretzako maitasun erromantikoaren ideia horretara bideratua dago guztiz.

I. T.: Neskek ezin dugu salba gaituzten zain egon, eurek salbatu behar duzte euren burua.

M. G.: Zentzu horretan, guretzako, autodefentsa feminista oinarri eta klabeetako bat da. Guretzat hori hezkidetzat da, feminismoaren oinarrietako bat da hori. Guk horrela planteatzen dugu autodefentsa feminista. Bizitzeko jarra bat da feminismoa. Zure munduaren jabe izateko modua da, zure gaitasune-

tan sinesteko modu bat da autodefentsa; indarkeria matxista eta sexista kasuak identifikatzeko eta horiei mugak jartzeko ikasteko.

Dena den, indarkeria matxistaren prebentzioak badu, teoriarik bederen, eskoletan lekua, ezta?

I. T.: Bai, izebergaren puntak bai. Baina irakasle askorekin hitz egitean konturatzen gara gehienek indarkeriatzat eraso fisikoa bakarrik hartzen dutela; behin bestelako indarkeria mota batzuk aipatzen dizkiezunean, orduan hasten dira jabetzen indarkeria sexista zabalagoa dela. Lehenik irakasleak berak egin behar du kontzeptu aldatzea; formatzailearen formazioak jarraikorra izan behar du. Guraso, begirale eta hezitzaile guztiekin batera irakasleak kontziente izan behar du sistematikoki ematen diren indarkeria horiez guztiez. Klik baten premia dago.

Baina hain agerikoak ez diren indarkeria keinuak nola landu? Adibidez, gorputz ereduak dagokionez, egungo edertasun ereduak gure gorputza ez maitatzera garamatza, ezta?

M. G.: Emakumeak jasotzen ditugun indarkeria konstanteak izeberg baten modukoak dira, non puntan irainak eta jipoiak dauden, eta horiek oso ondo identifikatzen ditugun, baina izebergaren oinarrian daudenak, eta horiek dira ugariak eta egunero jasaten ditugunak, zapaldu egiten gaituzte. Horiei aurre egiteko, pertsonaren autoestimua

maider gonzalez idoia trenor

E

“**Sexualitatearen kontrola, maitasun erromantikoarena eta txikitatik sartzen diguten kontrol mekanismoak dira.**”

landu behar da.

I. T.: Lehen pausoa oinarrizko eraso sexista horiek identifikatzen ikastea da, hori ez baitigute erakusten. Kontziente izan eta behin jabetzen zarenean mugak jartzen hasiko zara, horretarako gaitasuna eta tresnak landuz. Nork bere burua defendatzen ikasi behar du, bere burua maitatuz, autoestimuan oinarrituz. Nola egin dezakegu hori? Autodefentsaren bidez. Geure burua zainduz izango gara burujabe, eta ez denbora guztian geure burua eta gorputza erreprimatuz. Nerabezaroan, gaztetan, helduekin... guztiekin lan-tzen dugu hori.

M. G.: Nerabezaroa klabea da; garai horretan aldaketa ikaragarriak gertatzen dira eta maitasun erromantikoaren, gorputz irudiaren kontrol eta indarkeria hori guztia orduan hartzen dugu bereziki, begietatik eta belarrietatik eta leku guztietatik sartzen digute ikaragarriko presioa, eta hori indarkeria da. Indarkeria bizitzako eremu guztietan eta dimentsio guztietan ematen da, askotan oso modu sotilean, eta hori da sistemak berak asmatu duena.

Hezkidetzak, indarkeria sexista prebenitzetik aparte, alor guztietan eragitea litzateke ezta? Edukietan, materialetan, parte-hartze dinamiketan...

I. T.: Jolas-orduetan espazioa nola antolatzen dugun; zer filma erakusten diezun; eskolan nola esertzen diren; irakaslearen mugimendua... dena har-

tu behar dugu kontuan. Hezitzaileak betaurreko horiek jantzi eta gauzak beste modu batean ikusteko ahalegina egitea beharrezkoa da. Eta hori guztia lantzeko materiala badago.

M. G.: Pertsonala politikoa da, aspaldi esan zuten hori feministek. Dena da, jarrera bat da, begirada bat da, ukitzeko modua... gauza askoren inguruan egin behar da hausnarketa. *Curriculum* ezkutuari ikaragarriko garrantzia ematen diogu. Espazioaren banaketaren lanketa batek, edo denboraren kudeaketan dituzun planteamenduek ez dute eraginik izango irakasleak transmititzen duena beste norabide batean baldin badoa. Neska bati edo mutil bati zuzentzeko moduan, tonuan, hizkuntzan... beste norabide batean ari bada hezitzailea, ba ez dugu lortuko helburu eraldatzaile hori. Hezitzailearen jarrera pertsonala behar-beharrezkoa da, kontzientziario klabea da eraldaketa benetan egingo bada.

Horregatik, *Hezkidetzak Gida* atera genuenean ere salatzen genuen, irakasle eskoletan, irakasleak formatzeko zentro eta guneetan, oraindik ez dela hezkidetzak bezalako asignatura oinarritzko bat ematen. Hezkidetzak gaietarako formazio berezi bat behar dute hezitzaileek. Hor ari dira etorkizuneko irakasleak formatzen, gero haurrekin, nerabeekin, edo helduekin egongo direnak. Eduki eta kontzientziario partekidea hezitzaileen formazioaren parte izan beharko litzateke.



Lask abesbatza, emozioak jorratzeko

Tolosako Laskorain ikastolan, *Laskorain emozioak* proiektua garatzen ari dira urte batzuetatik hona. *Laskorain emozioak* egitasmoa sortu zuen ekimenaren sorreran hainbat hausnarke-ta, behar eta asmo daude. Izan ere, Hezkuntza Proiektuan jasota dituzten zereginetan agertzen diren ezaugarri asko kultura ekimenen bidez indar zitzakete-la pentsatu zuten. Garatzen ari diren *Laskorain emozioak* proiektuan, beraz, helburu bat baino gehiago lortu nahi dituzte. Horretarako, proiektu horretara kultura diziplina ugari bildu dituzte, hala nola: abesbatza, diseinua, teknologia berriak, antzerkia eta dantza. Proiektuak bi urteko iraupena izan du.

Lask abesbatza

Diziplina denen artean, abesbatza da proiektuaren ardatza. Lask, Laskorain ikastolako abesbatza, 1995ean sortu zen, eta Tolosaldeako 100 neska-mutilek osatzen dute. Abesbatzako partaideak bi taldetan daude banaturik: ikasle txikien taldea, 8-9 urteko kantariak; eta handien taldea, 10-14 urtekoak.

Abesbatzaren helburu nagusia,



musikaz gozatzea eta abesten ikastea da, eta garrantzi berezia ematen diote talde-giroari. Musikaren bidez, era berean, beste helburu pedagogiko batzuk ere landu nahi dituzte: adimen emozionala, genero-berdintasuna eta immigrazioa, besteak beste.

Orain arte, bi diskoren grabaketan parte hartu du abesbatzak, eta Tolosaldean hainbat kontzertu eskaini dituzte. Aspaldiko ametsa zen, ordea, beren abestiekin osatutako disko bat editatzea.

Yau Samayaye diskoa

Haur eta gazteek beren eskolaz kanpoko abesbatza-jardueraren baren garatutako proiektuaren emaitza da *Yau Samayaye* Lask abesbatzaren diskoa. Alde batetik, abesbatzaren soinu kalitate beroa eta aberatsa, ahotsek sorturiko testura- eta kolore-aniztasuna, giza ahotsa soinu-tresna guztietan bereziena egiten duen komunikatzeko eta hunkitzeko gaitasuna... eta, bestetik, antzerkia, dantza, teknologia be-

riak, musika eta abar txertatzea izan da lan horren erronka nagusia. Aldi berean, kultur proposamen bizi eta interesgarri bat eraiki nahi zuten.

Errepertorioa aukeratzeko orduan, herri-musika izan da oinarri, eta urtaroe-ekin lotuta dauden kantuak sartu dituzte, diskoa urte osoan egindako ibilbide musikal baten antzera planteatuz (Gabonak, inauteriak, uda eta abar). Euskal gaien nagusitasuna nabarmena den arren, haiekin batera, munduko beste hainbat herrialdeko kantuen irakurketa berriak sartu dituzte.

Bideoklipa

Hainbat kultura-diziplina uztartu nahian, diskoarekin batera bideoklip bat grabatu dute tolosarrek. Bideoklip-ean, ikastolako antzerki taldeko kide-ek parte hartu dute. Bideoklip-eko protagonista Baba Lo gazte senegaldarra da. Gaztea erabat erroturik dago Tolosan, eta, haren bidez, beste leku batzuetatik etorritakoek gure jendarte-

integratzeko egiten duten ahalegina eta kulturantzitasunak ekartzen dion aberastasuna islatu nahi izan dute.

Bideokliparen grabaketan, ikastolako hainbat talde aritu dira, ikastolako guraso baten gidaritzapean.

Bloga kanpora zabaltzeko

Egitasmoa kanpora zabaltzeko asmoz eta egindako lanari oihartzun handiago emateko asmoz, teknologia berriak erabili dituzte. Blog bat sortu dute proiektu horri buruzko informazioa eta prozesuan ekoitzi dutena zintzilikatzen. Argazki lantegiko neska-mutilek ere parte hartu dute egitasmoan, eta haiek egindako argazkiak ikusgai daude blogean.

Talde berezi bat osatu zuten diseinua jorrazteko. Bideoklipeko dekoratuaz arduratzeaz gain, proiektuaren logoa egin du talde horrek, eta blogaren diseinuaz ere arduratu da.

Proiektuaren helburuak

Proiektuak, bere adar guztiekin, helburu hauek bete nahi zituen:

- Ekintzailetasuna: proiektuaren gidaritzan 10-18 urte bitarteko neska-mutilek hartu dute beren gain; haiek hartu dituzte erabakiak. Proiektuko koordinatzailearen zeregina zirikatzaila egitea izan da, baina protagonista na-



gusiak nerabeak izan dira. Ekintzailetasun-kultura sustatu nahi zuten, nerabeen sorkuntza kaleratu, eta diskoaren egitasmoa aukera paregabea izan da horretarako: diskoaren ekoizpenaz, kostuez, proiektua gurasoei eta komunikabideei aurkezteaz, marketinaz eta abarrez nerabeak arduratu dira.

Lan-talde hauek aritu dira egitasmoan: abesbatza, bideogintza, antzerkia, argazkigintza, dantza eta diseinua. Talde guztien lana koordinatzen arduradun bat ibili da. Talde koordinatzaileak bi astean behin elkartu izan da, eta alor bakoitzeko koordinatzaileek parte hartu dute bilera horietan. Parte hartu nahi zuen edonorentzat irekiak ziren

bilerak.

-Emozioa: Laskorain ikastola aspalditik ari da adimen emozionalaren gaia jorrazten. Adimen emozionala norberaren emozioez jabetzea da, horiek identifikatzea eta ulertzea; baita besteez jabetu eta haiek identifikatzea ere. Gure bizitza eta lana helmuga pertsonaletan (ametsak) oinarritzea da, nork bere burua motibatzea eta besteekin harreman emankorrek izatean datza (elkarbizitza), hain zuzen.

Azken urte hauetan askotan gorai-patu dira musikak adimen emozionalan dituen onurak: Gardnerrek bere liburuan aipatzen du adimen musikala, beste adimen batzuekin batera. Adi-





men kontzientea neurtzea nahikoa ez den garai honetan, garapen emozionalari behar duen garrantzia ematen ari zaionean, musika bide ona da garapen hori lantzeko. Proiektu honek, beraz, parada eman du nerabeekin emozioen lanketa ugari egiteko.

- Euskara: gure helburuetako bat euskara normaltasun osoz bizitzea izanik, ekintza guztiak (saioak, musika-lantegiak, kontzertuak, diskoaren ekoizpena, eta abar) euskaraz egin dira. *Euskaraz Bizi* proiektuko sortzaile-etakoak izan ziren Laskorainekoak, eta, orduan bezala, euskararen aldeko kontzientzia sustatuz eta ahalik eta erabilera-esparru gehienetan euskara egoki erabiliz, haur eta gazteek euskara arloan eta euskal kulturaren garapenean eta sustapenean jarrera aktiboa hartzea izan dute helburu. Bestalde, blogeko informazio guztia euskara hutsean dago.

- Genero-ikuspuntua: Laskorainen mamitu duten proiektua generoaren gaineko hausnarketaren ondorioz sortu zen. Urte dezente zeramatzaten kezkatuta abesbatzan, antzerkian eta dantzaren parte hartzen zuten mutil-kopuru txikiarekin. Proiektu berritzaile horren helburua ere bada mutilak kultura-egitasmo horretara erakartzea.

Azken urteetan, berdintasunaren alorreko hainbat estereotipotan urrats nabarmenak egin dira, baina estereotipo horiek oso barmenatuta daude

oraindik. Gazteentzat erakargarria den proiektu bat egitea izan da helburua, orain arte urrun zeuden neskek eta mutilak kultura-arlo horietara hurbiltzea.

-Kultura: hainbat kultura-diziplinaren arteko sinergiak bilatu nahi izan dira, partaideak kultura-proiektu bateko protagonista sentiarazteko. Kultura baretik ezagutarazi nahi zen, dagokion protagonismoa emanez, kultura-erikiko zaletasuna bultzatzeko.

- Gizarte-proiektzioa: jarduera horiekin guztiarekin, mugak zabaldu egin dituzte, eta Euskal Herriaz gain, hortik kanpo ere gure kulturaren berri eskaintzeko aukera izan dute. Hala, abesbatza katalan batekin truke egin dute eta, diskoan, kanta bat katalanez grabatu dute. Ekintza horiekin guztiarekin, ur-

tean lantzen dutena kanporatu nahi izan dute, partekatu, onuradunen kopurua zabaldu, orain arte partaideen gurasoek soilik gozatzen baitzuten egindakoaz. Eta asmo horretan, teknologia berrien erabilera funtsezkoa izan da.

Ebaluatzeko erabiliko dituzten adierazleak

Ikastolan lantzen diren proiektu guztiarekin egiten den gisan, proiektu hau ere ebaluatu egingo dute. Horretarako, ikastolan ezarritako EFQM kalitate-sistemaren hainbat adierazle erabiliko dituzte:

- Partaide-kopuruaren igoera: aurreko ikasturtearekin alderatuta, abesbatzan, antzerkian eta dantzaren izena eman dutenen ehunekoaren igoera. Adierazle horrekin, proiektuak nerabeengan zenbaterainoko interesa piztu duen jakingo dute.

- Disko-salmenta.

- Blogaren bisitari-kopurua.

- Kontzertu-kopurua.

- Autofinantzazioa.

- Nesken eta mutilen arteko parekotasuna.

- Gurasoen eta neska-mutilei banatutako zaien gogobetetasun-inkestako emaitzak.

Proiektua zehatzago ezagutzeko, tolosarrek sortutako blogean begira dezakezu:

laskabesbatza.blogspot.com. ●



Ikas komunitateak eskolatik haratago

Zarauzko Orokieta ikastetxe publikoan ikas-komunitateak lantzen dituzte. Eskolak komunitateko partaide izan behar duela argi dute, eta horregatik hasi ziren esperientzia jorratzen ikastetxean. Izan ere, “eskolak ere egunetik egunera aldatzen doan gizarte honetan lekua izan behar du, eta gizartea bezain azkar mugitzen eta eraldatzen jakin behar du. Hori guztia, komunitateko parte izanda lor daiteke soilik”.

Eskola jendarteko parte izateko eta jendarteak eskolan parte hartzeko bidean, hiru ekimen jarri dituzte abian: bilera mistoak, tertulia dialogikoak eta talde elkarrengileak.



Bilera mistoa edo batzarra

Bilera horietan eskolako arazoak, kexak eta erabaki beharreko gaiak azaltzen eta aztertzen dira. Bilera horiek bideratzeko, gela bakoitzean moderatzailea, ordezkaria eta idazkaria dituzte.

Gela bakoitzeko ordezkariak zuzendaritzarekin biltzen dira. Zuzendaritzarekin egindako bilera horretan aztertutakoak gelan azaltzen ditu ordezkariak, ondoren.

Oso balioespen ona egiten dute bilera horiez, alegia, ikasleek eskolako erabakietan parte hartzeaz, “eskolako partaideak denok baikara”. Bilera mistoen maiztasunari dagokionez, normalean, hilean behin izaten dira.

Tertulia dialogikoak

Euskaraz zein gaztelaniazko hainbat liburu irakurtzen dituzte ikasleek. Liburu horietan, adiskidetasuna, errespetua, maitasuna eta horien gisako balioak lantzen dituzte.

Tertulia dialogikoak bideratzeko modua hau da: ikasleek, astero, liburu baten kapitulua irakurtzen dute. Bakoitzak interesgarria iruditzen zaion kapitulua edo paragrafoa aukeratzen du. Gero, denen artean aztertuko dute gelan.

Tertulia dialogiko horiek, ikasleekin egiteaz gain, gurasoekin ere egiten dituzte. Ikasturte honetan, hileroko euskarazko talde bat biltzen da.



Talde elkarreragileak

Talde elkarreragileen ekimen hau abian jartzeko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Boluntarioak ikasleen senideak, ikasle ohiak, praktiketako ikasleak, herriko eragileak, hizkuntza-eskoleko ikasle atzerritarrak, eta abar, izan daitezke.

Talde elkarreragileak 4 edo 5 ikaslez osatutako talde txikiak dira. Talde bakoitzean heldu bat, boluntario bat, aritzen da.

Talde horiek heterogeneoak izaten dira, "aniztasuna da berdintasunaren oinarria", diote ikastetxeko arduradunek. Elkarrekintzaren bidez, era berean, ezagutzak denon artean eraikitzen dira.

Talde elkarreragileen helburua ikasleek gehiago ikastea eta eskolako bizikidetzara hurbetzea da.

Hainbat arlotan jar daitezke praktikan talde elkarreragileak. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleek, adibidez, ingeleseko arloan egiten dute lan talde elkarreragileen bidez. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak, berriaz, 2. eta 4. mailako ikasleekin aritzen dira jolas matematikoak egiten laguntzen.

Berrikuntza gisa, aurtengo ikasturtean, ikasle ohi batzuk etortzen dira talde elkarreragileetan ikasleei laguntzera.

Orokietako ikastetxeko arduradunak, ikas komunitateen esperientzian sakontzen jarraitzeko, Hemel Hempstead herrian (Erresuma Batua) izan ziren, beste hainbat herrialderekin batera. Herri horretan, auzolanean egiten dute lan eta borondatezko lana egitea oso zabaldua dago. ●



Orokietako ikasle ohiak



LH 6. mailakoak



Kulturarteko hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuta zer da kulturarteko ikastetxe bat



Zalantzarik gabe, ikasle etorkinak edo ikasle etorri berriak gure eskoletan hasteak oso kontuan izan beharreko erronka ekarri dio eskola-komunitateari.

Eskoletan errealitatean egiten diren praktikei begiratuko bagenio, oro har, benetan dauzkagun ereduak bi dira: asimilazioa eta kulturantzatasuna. Izan ere, gure eskoletan hizkuntza-ereduak dauzkagu, talde bereziak, ikastetxe katolikoak edo laikoak, eta abar. Ekinbide eta praktika horiek guztiak bi eredu horien baitan kokatzen dira, baina kulturarteko praktikak ote dira?

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan azken hamar ikasturteetan gai horren inguruko bi programa ezarri dira. Lehen programa, *Ikasle etorkinak artatzeko programa*, 2003-2007 urte bitartean ezarri zen. Ondoren, *Kulturartekotasunaren eta ikasle*



Jose Manuel PALACIOS
BERRITZEGUNE NAGUSIKO AHOLKULARIA

berrien inklusiorako programa egon da indarrean.

Berritzeguneen zeregina izan da bi programa horietan agertzen diren ekintzak eta baliabideak abian jartzeko egin beharreko sustapen- eta heda-

pen-lanak egitea. Ikusitakoa ikusita, ordea, esan genezake Kulturarteko Hezkuntza ez dela eskola gehienetan praktikatzen den errealitate bat, gehiago jarraitzen du izaten utopia bat, *desideratum* bat, ez dut uste erroturik edo sendoturik dagoen eredu bat denik. Ekitateari eta eskolako justiziarri erreparatzen badiogu, ordea, Kulturarteko Hezkuntzan sakondu egin beharko genuke.

Zer da Kulturarteko Hezkuntza?

Interesgarria litzateke Kulturarteko Hezkuntza esaten dugunean kontzeptu horrekin zer esan nahi dugun argitzea. Teoria mailan ez dago definizio bakarra, baina adituen proposamenak gurutzatzean ondoko ezaugarri hauek azpimarratuko nituzke:

1. Ikastetxeek ez dute gelak etorkinez edo atzerritarrez betetzera arte itxa-

ron behar kulturartekotasuna lantzeko. Horren arabera, ezin ditugu lotu immigrazioa eta Kulturarteko Hezkuntza: atzerritarrik ez izan arren gelan landu daiteke ikuspuntu hori. Gure jendarterea gero eta anitzagoa da, gure eskola, gure auzoa eta abar diren antzera. Eskolak, hortaz, mundu anitz batean bizitzeko herritarrak prestatu beharko ditu.

Kulturartekotasuna gure errealitatea ikusteko eta aztertzeko modu berri bat da, kontuan hartzeko hainbat aldagai eskaintzen dizkiguna.

2. Diskurtso hau ez da ikasle atzerritarrentzat soilik, ikasle guztientzat da. Horregatik, inoiz ez da proposatuko ikasle horiek talde berezietan biltzea edo ikastetxe bereziak eraikitzea haientzat. Ikuspuntu horretatik, ez da bilatzen gauza berezi bat egitea ikasle edo ikasle talde zehatz batentzat; aitzitik, ikastetxe batean proposamenen bat egiten bada, ikasle guztientzat izango da. Esaterako, ikastetxe batek erabakitzen badu hizkuntza bat landuko duela, jatorrizko hizkuntza bat, eskaintza ikasle guztientzat izango da. Kulturarteko Hezkuntza ikuspuntu horretatik begirata hainbat galdera egin beharko genizkioke geure buruari: Zer paper jokatu dute komunitateko familien hizkuntzek? Nola erabiliko ditugu irakasleok familien hizkuntzak? Familiak egingo ditugun harremanetan zein garrantzia emango diegu haien hizkuntzari? eta abar.

3. Eskolatzeko eskubidea. Orain arte indarrean izan diren bi programek epe kanpo iristen ziren matrikulak bideratzeko eskolatzeko batzordeak aurrerikusten zituzten. Batzorde horietan gehien erabili diren adierazleak ikastetxeetako egoera eta gurasoen nahia izan dira. Bestalde, prozesu horretan ikastetxeetako harrera-prozesuari garrantzi handia eman zaio.

4. Irakasleak ezin gara kulturarteko ikuspuntu horretatik kanpo geratu. Kontzientzia hartu behar dugu nola pentsatzen dugun, zein diren gure aurreiritziak, gure oztopoak aniztasun kultural horretan bizitzeko. Ez da guk ikasleekin lantzeko molde bat, guk ere

murgildu egin behar dugu. Horretarako komenigarria da hiru zutabe hauek kontuan izatea: pentsatzen duguna, egiten duguna eta sentitzen duguna. Beraz, kontzientzia hartu behar dugu egoera berri hori bizitzeko zer dakargun lehendik, zer oztopo eta zein muga ditugun.

5. Ekitatea eta justizia. Ikastetxean edozer egiten dugula ere, ikasteko, gaitzeko, eskolako arrakasta lortzeko, zorigaitzokoak ez izateko izango da, eta hori azpimarratzekoa da. Azken finean, eskola inklusiboa izatea da helburua, denentzako eskola. Ikasle guztiek dute eskolatzeko eskubidea, baina ez da nahikoa ikasleak gure ikasgeletan edukitzearekin. Eskolak guztien arrakasta lortu behar du. Aholkularitza lanetan gaitzazantzat, nazioartean funtzionatzen duten proposamenek eta komunitate zientifikoaren aintzatespena duten proposamenak ezagutzeko funtsezkoa da. Hori dela eta, azken bost urteetan, Europa mailan egiten ari diren *Include* ikerketari begiratu diogu.

Include ikerketa

Include ikerketak Europako hainbat hezkuntza-sistema aztertu ditu, eta zenbait praktika eraginkor eta hezitzaileak aukeratu dituzte. Praktika batek eraginkorra eta hezitzailea izateko, baina, bi baldintza bete behar ditu derrigorean: alde batetik, ikasle guztien emaitzak hobetu egin behar ditu; eta, beste alde batetik, ikasle guztien arteko kohesioa edo bizikidetzat hobetu egin behar ditu. Beraz, Europako ikastetxetan

Ikastetxeek ez dute etorkinez edo atzerritarrez betetzea itxaron behar kulturartekotasuna lantzeko. Horren arabera, ezin ditugu lotu immigrazioa eta Kulturarteko Hezkuntza: atzerritarrik ez izan arren gelan landu daiteke ikuspuntu hori.



egiten ari diren hainbat praktika hezitzaile eta eraginkor aukeratu dituzte, eta ikertzaileek txosten bat egin dute aukeraturako praktika horiek guztiek elkarrekin dituzten ezaugarri komunak jasotzen dituenak. Ezaugarri horiek, beraz, komunitate zientifikoak aintzatesatu ditu. Txosten horretan, besteak beste, ezaugarri hauek aipatzen dira:

- Emaitza onak eman dituzten taldeak talde heterogeneoak dira, ez dira talde homogeneoak. Ikasgelan dauden ikasleak ez dira, hortaz, kultura berekoak, ez maila berekoak, baina ikasle horiei eskaintzen zaizkien baliabide pertsonal guztiak ikasgelan bertan daude.
- Orain arte erabiltzen dugun eredu irakasle bat/ikasgela bat ez da baliagarria. Ikasgeletan askotariko ikasle-



Kulturarteko Hezkuntzaren ikuspuntua azken batean, arrazakeriaren aurka egiteko tresna eraginkorra eta baliagarria da, bai arrazakeria modernoaren eta baita arrazakeria postmodernoaren aurka.



ak daude, eta beste formula batzuk bi-latu behar ditugu: bi irakasle gela berean eta aldi berean, talde elkarreragileak, talde malguak baina heterogeneoak, curriculum egokitzapen eta ibilbide inklusiboak, ikasteko denborak eta gu-
neak zabaltzea, boluntarioak eta abar.

- Aukeratutako praktika horietan ikasteko denbora eta lekuak luzatu eta zabaldu egiten dira. Orain arte erabili ditugun ereduetan, adibidez, ikastetxeak ordu-kopuru jakina egoten dira zabalik. Ikerketa horretako emaitzak azaldu duenaren arabera, ikastetxeek denbora gehiagoz egon beharko lukete zabalik, ikastetxeetako ordutegiak gehiago luzatu beharko liriteke. Luzapen horiek ez dute irakasleen bizkar joan behar, hor daude PROA izeneko proiektua eta gainerakoak.

- Familien parte-hartzea eta prestakuntza. Ikerketak agertutako beste ondorio baten arabera, familien edozein parte-hartze moduak ez du balio. Informazioa ematea edo kontsultak egitea beharrezkoak izan daitezke, baina ikasleen apendizaiaren eragin gutxi dute. Gai esanguratsuetan eta garrantzitsuetan familien parte-hartzea ahalbidetzen denean, ordea, emaitzak hobekiak dira. Bestalde, funtsezkoa da familientzako prestakuntza-ekintzak antolatzea; ez, ordea, irakasleek pentsatutakoa haiek lantzeko, baizik eta gurasoek esango digute zer den landu nahi dutena. Hala ere, ona litzateke ikastetxean prestakuntza-ekintza sendo bat izatea.

- Irakasleentzako prestakuntza



zientifikoa bultzatzea. Prestakuntzaren diseinuan ikastetxeetako beharrei erantzuteko praktikan frogaturik dauden proposamenak sartuko ditugu, ez bat-batean bururatutakoa edota literatura pedagogikoan modan dauden azken ideiak. Geure buruei galdetu behar diegu zergatik egiten ditugun jarduera horiek eta ez beste batzuek.

6. Kulturarteko Hezkuntzaren ikuspuntu azken batean, arrazakeriaren aurka egiteko tresna eraginkorra eta baliagarria da, bai arrazakeria modernoaren eta baita arrazakeria postmodernoaren aurka. Izan ere, garai batean arrazakeria arraza kontzeptuan oinarritzen zen, endozentrismoaren ideian. Egun, arraza eta etnia guztiak desberdinak izan arren onak dira. Baina, horri gaineratzen diogu talde jakineko jendearekin bizitzea ezinezkoa dela. Hori da, hain zuzen, arrazakeria postmoderno: denak berdinak garena pentsatzea, baina elkarrekin bizitzea ezinezkoa dela, alegia. Kulturarteko hezkuntza ikuspuntua zabaltzeko duela 4 ikasturte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako laurogehien bat ikastetxeetan baliabide bat jarri zen martxan: Kulturarteko Hezkuntza proiekturako irakasle dinamizatzailea. Baliabide hori, ordea, etorkin asko dituzten eskoletan soilik eskaintzen da. Pertsona horiek beren lanegunaren erdia eskaintzen dute ikuspuntu hori zabaltzeko, eta lan-esparru hauek dituzte, besteak beste: harrera-prozesua, ikastetxea familia horietara hurbiltzea, alegia; metodologiak gainbegiratu eta irakasleekin partekatzea; baliabideak biltzea; ikastetxeko gaine-

rako kulturak argitara ekartzea eta abar.

7. Kulturarteko Hezkuntzak oso kontuan du eskolako hezkuntza eta oso baliagarria da haren jabeak bultzatzeko. Izan ere, ikasleek nola gaindituko dituzte ikasmilak eta ikastarloan ez badute menderatzen eskolako hezkuntza edo hezkuntzak? Eskolako hezkuntzaren gaia kudeatzen laguntzeko HIPIak daude: 250 sare publikoan eta ehunen bat itunpeko ikastetxeetan. Irakasle horiek, harrera-prozesuan eta hasierako ebaluazioan parte hartzen dute, ikaslearen bakarkako plana egiten dute eta ordu batzuk eskaintzen dituzte eskolako hezkuntza indartzeko.

Ikasle etorkinak ikasgeletan daukagu, baina kosta egiten zaie ikasmilak gainditzea. Horren adibide bat, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, gutxi gorabehera, Lehen Hezkuntzan ikasle etorkinen kopurua %7,5 dela eta Batxilergoan daudenak, berriz, %3. Beraz, gure benetako erronka, eskolako hezkuntza edo hezkuntzak ikasteaz gain, arloetako edukia menderatzea izango da. Bestela, ez dute titulua aterako.

Bukatzeko, Espainiako estatuan osatu den RED DE CENTROS INTERCULTURALES (<http://www.escuela-sinterculturales.eu/spip.php?article1>) izeneko ekimen interesgarria aipatuko nuke. Sare horretatik kulturarteko ikastetxea izateko proposatzen dituzten 17 ezaugarriak, ikastetxeetako praktikak bideratzeko oso gidari aproposak bihur daitezke eta.

Obarra: Jose Manuel Palaciosek EMUNek "Kulturartekotasuna, herria, hezkuntza eta bizkuntza" jardunaldietan parte hartu zuen Gasteizen.



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

Elkarbizitza eredu berri baterako



Ikastolen elkarteak, XIX. Jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu martxora-ko. Aurten, *Elkarbizitza eredu berri*

baterako pedagogia izango da jorratu-ko den gaia. Jardunaldiak, martxoaren 13an, 14an eta 15ean izango dira. Lehen

egunean, Donostiako Bakearen etxean, "Bakea eta giza eskubideetarako hezkuntza" hitzaldia eskainiko du Bakearen Kultura Fundazioko lehendakari Federico Mayor Zaragozak.

Jardunaldiek Gasteizko Europa jau-region izango dute segida. Jon Mirena Landaren "Giza eskubideetarako hezkuntza nazioartetik EHra", Jonan Fernandezek "Elkarbizitzarako hezkuntza 4 puntu kardinalak" eta Juan Carlos Torregoren "Elkarbizitza ikastetxeetan. Gatazkaren trataera" hitzaldiez gain, tailerrak, mahai-ingurua, batera-jartzea eta abar izango dira.

Matrikula epea martxoaren 8ra arte izango da. Informazio gehiago:

www.ikastola.net

Udaltop topaketak dataz aldatu dituzte

Martxoaren 29an eta 30ean egitekoak ziren aurtengo Udaltop topaketak. Egun horretarako deituta dagoen greba eguna dela eta, martxoaren 22an eta 23an egingo dituzte, Lasarte-Orian. Aurten laugarrenez egingo dituzte "*Nolako da gure (udalaren) bizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!*" izenburupean. Euskal Herriko hizlarietz gain, kanpokoak ere izango dira, hala nola, Bernat Joan i Mari soziolinguista eta Katalan Filologian doktorea.

Martxoaren 16a izango da topaketetan parte hartzeko ize-na emateko azken eguna. Horretarako eta informazio gehi-ago izateko: www.udaltop.com



Euskalduna naiz eta harro nago!



Horixe da Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak mar- txoaren 17an Donostian lau hazietara zabaldu nahi duen mezua. Egun horretan, hain zuzen, ospatuko du aurtengo Euskaraz Bizi Eguna. Donostiara joan eta Euskaraz Bizi Egu- nean parte hartzeko deia luzatu die herritarrei. Herri-bazka- ria, gaueko kontzertua eta Nazio manifestazioa badira ere jardun nagusiak, egitarau zabalara prestatu du EHE taldeak. www.euskalherrianeuskaraz.org

Ofizialtasunaren aldeko deiadarra



Martxoaren 31n, Baionan, euskararen ofizialtasuna eta haren aldeko lege eraginkorra eskatzeko manifestazioa egingo da, Deiadar manifestazioa.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta

Zuberoan euskararen egoera benetan larria dela eta, euskalgintzako gizarte eragileek antolatu dute Deiadar manifestazioa. Aurten, Euskal Herriko mugak gainditu eta hizkuntza gutxituen

aldeko manifestazioak antolatu dituzte Alsazian, Britainian, Okzitania, Katalunian eta Korsikan. Manifestazio horietan hizkuntza gutxituentzako benetako lege babesa eskatuko dute.

Duela zortzi hilabete antolatu eta egin zuten manifestazio horretan parte hartzeko deia. Hilabete hauetan hainbat ekimen antolatu dituzte, eta Deiadar manifestazioa izango da horien guztien gailurra. Euskalgintzako eragileekin batera, hezkuntzako hainbat eragile ere egin dute manifestazioan parte hartzeko deia. Izan ere, "euskaraz ofiziala bada, eskola publikoak ere kontuan hartu beharko du eta beste eredu batzuk garatzeko aukera izango dugu" eta "eskubidea da euskaraz ikasi eta azterketak euskaraz egitea".

www.deiadar.com

Auzo-lana Bizi-Tokin



Behauzeko (Nafarroa Beherea) Goitia baserrian hazten ari da Bizi-Toki proiektua. Hilean behin, auzo-lan aste-

burua antolatzen dute hezkuntza proiektu berri hori lagundu nahi dutenen artean. Martxoaren 10ean eta 11n

egingo da hurrengo auzo-lana, goizeko 9:30etik aurrera. Martxoko lanak gelak isolatzea, egur mozketa, oilategia eraikitzea, baratzearen prestaketa eta abar izango dira. Azken lan horiek egiteko, partaideei lurra iraultzeko eta lurra hausteko esku tresnak ekartzeko eskatu zaie.

Bizi-Toki egitasmoa laguntzera doazenei, bertan prestatuko otorduak eskainiko zaizkie, eta aukera izango dute han lo egiteko. Horregatik, komeni da alde zurretik izena ematea.

Bizi-Tokian, gaur egun, 12 haur ari dira, eta Behauzeko Goitia baserri ederra ari dira egokitzen egitasmo pedagogiko berri hori aurrera eramateko (ikus *bik hasi* 164). Argazkian, urtarrian egindako auzo-lan asteburua.

www.bizitoki.org

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan diagnosis



Hirutan egin da *Diagnosis* ebaluazioa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Hirugarren *Diagnosis*an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek, Euskararen, Gaztelanian eta Matematikan dituzten ezagutzak mailak aztertzeaz gain, aurten Ingelesean dutena ere aztertu dute.

Isabel Zelaa Hezkuntza sailburuak Eusko Legebiltzarrean azaldu duenez, 2011n egindako ebaluazioak erakutsi dute, Lehen Hezkuntzako ikasleek emaitzak hobetu dituztela Matemati-

kan eta errepikatu egin dira Bigarren Hezkuntzan.

% 36k oinarritzko gaitasuna euskaraz

ISEI Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko EAEko erakundeak emandako datuen arabera, DBHko 2. mailako hiru ikasleetatik bat (% 36) euskaraz komunikatzeko gaitasunari dagokionez oinarritzko gaitasunean dago. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen egoera bertsua da, % 30. Euskaraz komunikatzeko oinarritzko mailan dauden LH

4ko ikasleen kopurua % 2,9 hazi da, eta DBH 2koena, berriz, % 2,5. Bestalde, erdiko mailan dauden ikasleak % 6,3 jaitsi dira LHn, eta mantendu egin dira DBHn. Azkenik, ezagutza maila aurreratu dutenen batez bestekoa, % 3,5 igo da LHn eta % 2,9 jaitsi da DBHn. 2009ko emaitza hobea dela adierazi zuen Zelaa, % 3 okertu da, ordea, 2010eko datuen aldean.

Ingelesean gertatu diren aldeak

ISEIk 2011n ingelesez komunikatzeko kompetentzia aztertu zuen eta kontuan hartzeko moduko egoera bat antzeman zuen. Eskolaz kanpoko ingeleseko jardueretan parte hartzen duten ikasleek emaitza hobekak lortu dituzte parte hartu ez dutenek baino. Era berean, ekintza horietan parte hartzea, familien maila sozioekonomikoarekin lotuta dagoela ikusi zuten.

Datu horien aurrean, "Ingeleseko gaitasunetan hausturarik gerta ez dadin saiatzeko ari gara" azaldu zuen Zelaa.

Euskadiko Hezkuntzari buruzko Txostena

Euskadiko Eskola Kontseiluak Euskadiko Hezkuntzari buruzko txostena, 2008-2010 kaleratu du.

Txosten horretan azaltzen denez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 2 urteko haurren % 93 eskolatuta dago. Azterketaren arabera, eskolaturik ez dauden haurren kopurua handiagoa da maila sozio-ekonomiko apaleko eskola-zonaldeetan. Ondorioz, premia handiagoak izango lituzketen ikasle horien kasuan, euskalduntze goiztiarra edo beste gaitasun batzuen hasierako

garapena ahuldu egin daitezke.

Euskararen ezagupen eta erabilera mailarik apalena honako eskola-zonaldeetan gertatzen da: Nerbioiren ezker aldean, Bilboko zenbait barrutitan, Arabako hegoaldean Gasteizko eskola-zonalde batzuk barne, eta bi zonalde isolatutan (Ermua, Bizkaian; Donostia-ko ekialdeko barrutia, Gipuzkoan).

Ikasle etorkinei dagokionez, Eskola Kontseiluak uste du Tokiko Eskolatzeko Batzordeek ez dutela behar bezala egiten ikastetxe guztien arteko bana-

keta orekatua.

Hizkuntzari dagokionez, berriz, gure hezkuntza sistema elebidunean ikasleen % 70ek, sistemara sartzen direnean, ez du bi hizkuntzetako bat ezagutzen, eta horren eragina argi antzematen da kanpoko ebaluazioko emaitzak batera aztertzen direnean.

Euskararen egoeraz dio, A erudikoez gain, B eta D erudian ari diren ikasle kopuru handi batek kompetentzia maila baxua duela euskararen. www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Eskatu lehen alea DOAN: hikhasi@hikhasi.com



*Gutxiago falta da **Etxean** herzen
laguntzeko aldizkariak argia ikus dezan.*



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> 165. Hik Hasi aldizkarian, editoriala eta gai nagusia, bizitzako lehen urteen garrantziaz eta Haur-Eskolek jokatzten duten paperaz ari dira. Bertan jarri denarekin ados al zaude? Ekarpene bat egingo al zenuke?

>Bortizkeria prebenitzen

Oso interesgarria da aldizkarian idatzitakoa. Askotan ematen zaio garrantzia Haur-Txikien heziketari, Hik Hasik ere asko azpimarratzen du adin txikikoei eman beharreko inportantzia. Beste ekarpen bat egin nahiko nuke. Azken aldian, adin txikietan jasandako tratuak eta bizitutako heziketak izugarritzko eragina omen du adin handiagoetan izaten den bortizkeria jarrerarekin. Hori hala bada, pentsatu behar dugu adin txikietan egindako heziketa egokiaren inbertsioak ez duela norberaren garapen ebolutiboan eragina soilik, baizik eta ikuspegi sozialetik aurespen handia izan genezakeela. Hau da, adin horietan inbertitzeak, prebentzioak joka lezakeen papera eta egin lezakeen onura galanta izan litekeela. *Malen Igartua*

>Psikologiaren aurrerapenak

Azken urteotan izugarri ari da aurreratzen psikologia esparrua. Aldaketa handiak ematen ari diren munduan, pedagogiak ez du pauso berririk jorratzen; psikologian, aldiz, ikerketa ugari egiten ari dira. Horietaz baliatu behar da hezkuntzan aritzeko.

Inbertsio ona da haur txikiekin gatatzen dena, geroago emaitzak jasotzen direlako. *Miren L.*

>Nola egiten den dago gakoa

Badago aldea lana era batean egin edo bestean. Modu batera eginda, haurren autonomia, bere satisfazioa, garapen sana egiten dela irizten dut. Beste era batzuetan, aldiz, handien nahikerien preso edo dependenteak egiten direla iruditzen zait. Adibide gisa, begira ezazue haurrak izan dezakeen gaitasuna ikusten laguntzen digun bideoa. Ongi hausnartu! *Maihu E.*

<http://educadorasdeinfantil.blogspot.com/2009/06/moverse-en-libertad.html>

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Espainiako estatuko hezkuntzan hainbat lege aldaketa planteatu ditu gobernu berriak. 166. hik hasi aldizkariko editoriala horretaz ari da. Bertan jarri denarekin ados al zaude? Zein da zure iritzia?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Frantzia je t'aime esaten dute

Joxe Mari Iturralde
PAMIELA

Imajina ezazue eszena hau: Frantziara zoazte, oporretan, lagunekin batera eta gurasorik gabe! Ez dago gauza hoberik munduan! Frantsesa ikasi behar, hori bai, eta ez da erraza hizkuntza hori, e! Baina, tira, badira gauza okerragoak mundu honetan. Bitartean, gertakizun bitxi eta harrigarri asko gertatuko dira. 10 urtetik gorakoentzat. ●



Izotzetako erregina

Marie Diaz/ Miss Clara
IBAIZABAL

Munduaren iparrean kokaturiko uharte batean ahalmen beldurgarriak dituen sorgin bat bizi da.

Haren jauregia izotz blokeez inguraturiko glaziar bat da, eta ufada batez eragiten ditu elur-jausiak eta kazkabarra, eta sortzen du bisutsa. Izotzetako erregina deitzen diote... Andersen-en *Elurretako Erregina* ipuinean oinarritua. 8 urtetik gorako haurrentzat. ●



Maleta egitera

Joan Carles Girbes/Silvia Ortega
ALBERDANIA

Markelek eta Mainerrek oso gustukoa dute bidaiatzea. Liburuekin urrutira joaten dira. Albumak koloreetan bildumako beste liburuak dira: *Urtebetez jaia*, *Mugimendu handiko eguna*, *Denok denda barrura*, *Irudien eta hitzen liburu potoloa*, *Mamu tren mamu tren*, *Joxe Migel basoko oreina eta Antton eta eguberritako oparia*. 3 urtetik gorakoentzat. ●



Zientzia gaztiz arduragabea

Sean Connolly
ELHUYAR


Erraz eros edo lortu daitezkeen osagaiekin egiteko 65 esperimenteren proposamena. Zazpi ataletan banaturik daude, eta atal bakoitza zientzia-gai bati dagokio. Esperimendu bakoitza modu logikoan eta errazean aurkeztuta dago. Ba ote du zerikusirik arduragabea izateak esperimenduak egitearekin... 9 eta 14 urte bitartekoentzat. ●



Diglosiaren inguruan

bat soziolinguistika aldizkaria
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Aldizkariaren argitalpen berriak zenbaki bikoitza aurkezten du ale bakoitzean, 79, eta 80, hain zuzen. Euskaltzaindiarekin elkarlanean osatu dute. Helburua, soziolinguistika esparruko ezagutza teorikoari bulkada ematea eta bozgorailu izatea; horrela, arlo teorikotik praktikarako zubiak egitea erraztuz. ●



Rita estu eta larri

Mikel Valverde
ELKAR

Ritak arazo bat dauka: gurasoek batera gustatzen ez zaien xurgagailu bat itzuli behar dute, gailuak opari zekarren panpina eskusiboa barne, eta Ritakez du jostailua inon aurkitzen. Gurasoek espero dute agertuko dela panpina eta konfiantza dute alabarengan. Beraz, Ritak eginahalak eta bi egingo ditu aita eta amaren nahia betetzeko. ●

... nora joango gara?

*Kooper*a merkatua, kontsumo arduratsuan sakontzeko

Jendartea hainbat baliotan sentsibilizatzeko berebiziko garrantzia izango du datozen belaunaldientzat. Balio horiek ingurumen-prebentzioa eta kontsumo arduratsua dira, besteak beste. Izan ere, ikasleek egunerokoan alternatiba sozial eta arduratsu baten alde egin dezaten, garrantzitsua da beharrezkoa den prestakuntza eta informazioa izatea.

*Kooper*a sareak sentsibilizazio-estrategia jarraituaren eta espezifikoa aldeko apustua egin du, eskolarako AGENDA 21ean jasotzen diren gaiak lantzeko. Lantzen diren gaien artean, hauek daude: kontsumo iraunkorra, hondakinen arloko ingurumen-prebentzioa, eta elikadura ekologikoak bere baitan dituen kontzeptu ezezagunak (konpostatzea, ekoetiketatzea, eta abar).

Iraunkortasun arloko hezkuntza esparruan, *Kooper*a merkatu ekologiko eta solidarioak beste aukera bat eskain dezake ingurumen-hezkuntza eta sentsibilizazioa jorratzeko.

Berreskuratzeak zer adieraz deza-



keen jabetzeko, zuzeneko adibide bizia da merkatua: etxean birziklatzeko ditugun ohiturak, ondorengo tratamendu-prozesuak nahiz gizarte gutiari zuzentzen zaion kontsumo iraunkorreko eskaintza.

Merkatuaren ekimenaren bidez, *Kooper*a sareak ingurumenari, gizarte-ari eta hirigintzari ekarpena egingo dien proiektua zabaldu nahi du. Bide

horretan, gizarte-kohesioa sustatu nahian, aitzindaria da proiektua, ingurumena hobetzearen aldeko zabalkundea, kontsumo iraunkorraren eskaintza eta lan eta gizarte-esparruko integrazioa espazio berean batzen dituelako.

Merkatuan, erakusketak, hitzaldiak, bisita gidatuak eta prestakuntza-jarduerak egiten dira. Hori guztia, gi-

koopera
red social gizarte karea

Recicla
REZIKLETA

E
Marrak

LANDON
L

berohi
Coop

Eki-ber

COOP

Cáritas
Euzkadi

zartean eta lanean baztertuak izateko arriskuan edo egoeran dauden arrisku taldeen artean lanpostuak sustatzeko.

Koopera sareak ikasleekin egiteko bi bisita gidatu ditu aukeran: *Koopera* merkatua eta Koopera Reusing Center birziklatzeko lantegia.

Koopera merkatuan barrena

1. BISITA GIDATUA: lehenik eta behin, merkatua ezagutzera doazen taldeak, gelaz gela, bidezko merkataritzaren alorrean murgilduko dira. Hauek dira merkatuak eskaintzen dituen atalak: moda solidario eta ekologikoa, berreskuratutako arropa; etxetresna elektriko solidarioak, berreskuratutako etxetresna eta gailu elektronikoak; berreskuratutako liburuak eta etxetresnak; berreskuratutako jostailuak; bidezko merkataritza eta elikadura biologikoa.

2. BIDEO EMANALDIA: kontsumo iraunkorra, nekazaritza ekologikoa eta ingurumen-prebentzioa jorratzen dituen bideoa ikusiko dute ikasleek.

3. LANTEGIA: hainbat lantegi eskaintzen dira: *Produktu iraunkorrak erosi egiten ditut; Ortuzain ekologikoak gara; Zertan jolastuko gara?*

Koopera Reusing Center

Mungian (Bizkaia) dagoen lantegian oihalak, jostailuak, etxetresna elektrikoak, altzariak, liburuak eta abar berreskuratzeko tratamendua egiten da. Gaiak bildu ondoren, lantegian, berpizt daitezkeen elementuak sailkatzzen dira, eta tratamendu prozesu batek pasatzen dira. Horrela, gai horien ehuneko handi bat berreskuratzeko aukera izaten da. Horri esker, haien bizizikloak jarraipena izango du.

Koopera Reusing Center bisitatu, eta hondakinen biziberritzearekin zerikusia duten lantegiak eginez, berreskuratzen, berrerabiltzen eta berpizten ikasiko dute ikasleek. Lantegia ezagutzeko bisitak 2012ko irailetik aurrera hasiko dira. ●

KOOPERA MERKATUA

Fernandez del Campo, 16-18
48010 BILBO

Harremanetarako eta lantegien tarifa galdetzeko:

TEL.: 688 634 032

t.heras@koopera.org

www.koopera.org



ORDUTEGIA

Astelehenetik larunbatera: goizeko 9:30etik 20:00etara.

KOOPERA MERKATUA

Koopera merkatua arkitektura iraunkorraren irizpideei jarraituz eraiki zen. Proiektuaren ingurumen- eta gizarte-helburuak kontuan izan dituzte merkatua eraikitzerakoan. Horregatik, material ekologikoak, eraginkortasun energetikoa eta birziklatutako materialak erabili dituzte.

Iraunkortasun-irizpideak gerturatu nahi dizkio Koopera sareak jendar-teari. Horretarako, aurreko mende hasieran Bilboko lehen tranbiaren zalditegia zena gela balioiztun bihurtu dute, eta Koopera Aretoa da gaur egun. Duela ehun urte baino gehiago, Bilboko kaleetan ibiltzen ziren tranbiak batetik bestera animalien indarrari esker ibiltzen ziren; Koopera Aretoan lo egiten zuten, beraz, tranbiei tiraka ibiltzen ziren mandoek.

Koopera merkatu ekologiko eta solidarioak 800 metro koadro ditu guztira. Hortxe dago 170 metro koadro dituen Koopera Aretoa ere.

KOOPERA REUSING CENTER

Kooperako tratamendu-eraikin berria Mungian (Bizkaia) dago, eta 4.500 metro koadroko azalera du. Eraikin horretan, gaien bizitza luzatzeko tratamenduak ezagutzeaz gain, hondakinak biziberritzeko lantegiak egin daitezke.



atzeko atetik



Asier SOTA

AKTOREA

Esker mila, lehenik eta behin, nire haurtzaro eta eskola garaietan, nirekin batera bidaiatu zuten guraso, anaia, lagun, irakasle eta objetuei (xiba, txapak, kanikak, kromoak, komikiak, Star Wars-eko panpinak, baloiak, patinak, potekak, buztina, txabolak egiteko lehen-gaiak, ikatza, klariona, harkatza, pintura eta marrazteko balio zezakeen edozer; eta guztien gainetik, HARRIED).

Gure ikastolak, Ikas Bide Ikastola, ez zuen berezko eraikinik: Amara Berriko Isabel II. ean genuen Eskolaurrea; lehenengo mailatik bosgarrenera arte-

Harribiziak

ko garaiak Txuri Urdin izotz jauregian egin genituen eta sei, zazpigarren eta zortzigarren mailak, Karmelo Balda frontoiaren atzealdean zeuden txabola prefabrikatu batzuetan.

Lurrik gabeko ikastola ginen. Zirko-ko langileen seme alabak bezalakoak ginen. Ez genuen eraikin propiorik. Baina bagenuen mendixka bat eta bertan basotxo bat eta HARRIAK...

Ez naiz ikasle “ona” izan. Onartzen dut. Nire notak nahiko kaxkarrak izan dira beti. Ikastolako psikologoak eta tutoreek “tontoa” ez nintzela esaten zuten, baina erraz distraitzen diren horietakoa nintzela. (KAR, KAR, KAR!!! TXALOAK!!!) Eta majoa nintzela. Mutil ona. Ogi puska, alegia. Azkeneko definizio horiek gustura sentiarazten ninduten. Horiek baitziren niretzat notarik hoberenak: nahiz eta irakasleak eta gurasoak nirekin bat ez etorri.

Niri eskulanak gustatzen zitzaizkidan, marraztea, buztina lantzea... eta musika. (Eta HARRIAK). Beste mundu batera eramaten ninduten gaiak. Hobbikiak? Ez! Niretzat bizitza ulertzeko

modua ziren.

– Eta lotsatia!

– Lotsatia?

– Bai, lotsatia!

– Orduan, aktore izatearena?

Duela gutxi, orduko nire irakasle batekin horri buruz hizketan egon nintzen: mutiko lotsati-lotsatia izanik, nola bukatu dudana aktore izaten. Berak ez daki. Nik ere ez. Baina beste mundu batera eramaten naute antzerkiak, marrazteak, musikak eta HARRIEK...

Agian horregatik gustatzen zaizkit oraindik HARRIAK. Geldi daudelako. Denborarekin aldatzen joaten direlako. Bizitza den bezala onartzen dutelako, inongo presarik gabe.

Ez dakit, multiploak, “objeto directo”ak, edo “irregular verbs”-ak jakingo dituzten. Baina koloreez, pazientziaz, formez, soinuez, bizitzaz asko irakatsi didate: HARRIgarria bada ere.

Irakasle maiteak, haur ameslari batekin topo egiten baduzue, HARRIEKIN gogoratu: gogor eginez gero puskatu egiten dira.

HAU, ura eta haizea.

Bilboko Udalak *Eman Giltza* programa hasiko du beste behin; horren bidez, 2.893 sendiri zuzenduko zaie udala, haurrak euskaraz heztearen garrantziaz ohartarazteko.

berria

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

Honako ekarpen hau egin nahi diont
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Alderazi X batez zure aukera

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 € | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | Aldi batean <input type="checkbox"/> |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | Lau zatitan <input type="checkbox"/> |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € | |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | |
| 100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da | |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 € | |

Sinadura

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide elektronikoa: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iratxe Monastegia 45, 13.31011 Iruñea.

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Kataluniako HAUR-ESKOLAK (0-3) bisitatzen da hiki hasi

Apirilaren 11tik 14ra

Bartzelona herrialdeko hainbat Haur-Eskola ezagutzera joango gara. Talde txikitako eskolak behatu, eta hausnarketa, iritzi trukaketa eta abar egingo dira.

Hilaren 11n, Bartzelonara joan; 12an, 13an eta 14an **Josep Miquel Céspedes** (San Adrià de Besòs), **Cavall Fort** (Sant Cugat del Vallès) eta **Llar d'Infants Cascavell** (Bartzelona hiria) eskoletan murgildu, eta, 14 arratsaldean bueltan etxera.



Argazkian, iaz Kataluniara egin genuen bidai pedagogikoan Haur Eskola bat ikus liteke.



Azaroan, Kalitatea jardunaldietan, Kataluniako Cavall Fort eta Josep Miquel Céspedes eskole-tako zuzendariak hemen izan ziren gurekin.

**Izena emateko azken eguna:
martxoaren 16a**

**Informazio gehiago:
www.hikhasi.com**

